



Fair Saturday (Bidezko Zapatua) jardunaldia egingo dute zenbait herritan, hilaren 26an. ▶11

Hego Euskal Herriagaz «zubiak eraikitzeke ahalak» edukiko ditu Ipar Euskal Herri Elkargoak, Battitta Boloquyk azaldu duenez. ▶16-17



hiruka

Uribe Kostako astekaria




78. zenbakia

2016ko
azaroaren 24tik
azaroaren 30era arte

Uribe Kostako berbeta, ipar-sartaldekoen artean

Urtzi Goitik eta Koldo Zuazok *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara* liburua aurkeztu dute Getxon. Bertokoaren ezaugarriak eta bereizgarriak laburbildu ditugu. ▶22-23



Uribe Kostako berbeta (gorriz) 11 herritan egiten da; Leioa eta Erandio tarteko eremuan daude, Loiu-gaz batera.



AGENDA URIBE KOSTA

Azaroak 25: erasorik ez!

Bariku honetan, eskualdeko herri denetan egongo dira emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko kontzentrazioak edo manifestazioak, eta ekitaldiak; aurreko zein osteko egunetan ere bai. Horiek denak, batera, aurkituko dituzu Agendan. ▶12-13

HERRIZ HERRI BARRIKA ETA SOPELA

San Andres Eguna, berton

Barrikan eta Sopelan Ander Deuna Eguna ospatzeko ekitaldiak egingo dituzte hilaren 30ean, eguaztenean. ▶7/8

KULTURA GETXO

Jone Uria finalean dago

Jone Uria Albizurik BBTko lehenengo finalaurrekoa irabazi du. Imanol Uria domekan lehiatuko da, Basaurin. ▶14

Sopelako Euskararen Astea, bideo-emanaldia, bertsoak, herri-kirolak, dantza eta antzerkia egongo dira. ▶7

Euskararen Astea prest dute Lemoizen: hilaren 28tik abenduaren 3ra bitartean, ekitaldi ugari egongo dira. ▶8

Gorlizko HAPOn Aurrerapena ikus daiteke Sertutxena kultur etxean; auzotarrek iradokizunak egin ahalko dituzte. ▶8

Gabon Zaharreko saio berezia grabatuko du Plentzia Telebistak zapatu honetan, hilaren 26an, Ontziola plazan. ▶11

Emakumeenganako indarkeria ozenago salatuko dute egunotan

Azaroaren 25a da Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna; horren harira hainbat jarduera antolatuko dituzte egunotan Getxoko Udalak eta udalerriko eragile feministek. Elkarretaratzeak barikuan izango dira.

Eguenean, hilaren 24an, eman- go diote hasiera Udalak eta eragile feministek azaroaren 25ean izango den Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldiei. Hala, *Sensaciones* performancea eta *Mujeres víctimas de trata, mujeres refugiadas-Desafíos en materia de protección internacional* goiburudun berbaldia egongo da 19:00etatik aurrera, Algortako Villamonteko kultur etxean. Sarrera doakoa izango da.

Modu berean, hilaren 24an eta 25ean, Udalak informazio-etxolak ipiniko ditu Areetako eta Algortako metro-geltokien inguruan. Horietan, berdintasunaren eta emakumeenganako indarkeriaren gaineko informazioa

emango dute. Era berean, eraso sexualen aurka Emakundek egindako esku-orriak ere banatuko dituzte, baita «Puntu lila» duten zorro txikiak eta irakurtzeko bereizleak ere. Orduetgia 12:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:30era izango da. Domekan, hilaren 27an, Utopian konpainiak *Apasionadas* izeneko antzezlan aurkeztuko du, Areetako Andres Isasi musika-eskolan, 19:30etik aurrera.

Horrez gainera, egunotan, emakumeenganako indarkeriaren aurkako sinboloa den puntu lila ipiniko dute hainbat eraikin publikotan, berbarako udaletxean, San Nikolaseko liburutegian, Andres Isasi musika-eskolan eta Bizkaiko Zubian. Herritarren arretarako bulegoek, Berdintasun Zerbitzuak eta Jabekuntza Eskolak puntu lilak



Elkarretaratze ugari egongo dira azaroaren 25ean.

edukiko dituzte, horietara hurreratuko diren herritarren artean banatzeko.

Herri-elkarteen ekimenak

Udalerriko elkarte feministek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hala, Giza-tiar elkarteak elkarretaratzea egingo

du Bizkaiko Zubiko plazan, 19:30ean. Ordu berean, manifestazioa egingo dute Bilgune Feministak, Haziak eta Mujeres con Voz elkarteek, San Nikolas plazatik abiatuta. Itzubaltzeta/Romon ordubete beranduago egingo dute manifestazioa, Xake plazatik hasita. ◀

Bapiruke

Gabonetako koloniak

Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era

Egunak: abenduak 26, 27, 28, 29 eta 30 & urtarrilak 2,3,4 eta 5.
Norentzat: 5-12 urte bitarteko umeentzat
Non: J.B. Zabala (Algorta) eta Romoko eskoletan

Prezioa: bazkideek 45 euro; bazkide ez direnek 60 euro; Getxon gutxieneko errenta jasotzendutenei 20 euro
Izen emate epea: bazkideek azaroak 28, 29 eta bazkide ez direnek azaroak 30 eta abenduak 1
Izena emateko ordutegia: egunero 10:00 - 13:30; 29an eta 30ean 16:30 - 18:00.

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Martikoena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa, Algorta
 94 491 03 87 | www.bizarralepoan.eus | info@bizarralepoan.eus

Antolatzailea

Lehiaketa

Txoriaren bila

Txori bat ezkutatu dugu Algortan eta beste bat Areeta/Romon; bilatu, aurkitu eta bidali argazkia WhatsApp honetara: **688 880 985**

Azaroaren 24tik 27ra.
 Aurkitzen dutenek zozketa batean parte hartuko dute.
 Anima zaitetz! Ipad bat edo Playstation bat irabaz dezakezu.

Irakurri oinarriak eta funtzionamendua:
www.getxo.eus/euskara

Getxo



Topaketak Getxo Elkartegian egingo dituzte, 12:00etatik 14:00etara.

GetxoMeeting abiatuko dute abendu hasieran

Udalerriko enpresa eta pertsona ekintzaileei begirako *GetxoMeeting* topaketak martxan ipiniko ditu Getxolanek, abenduaren 1ean, egunean. Horren barruan, hamabostean behin batuko dira udalerriko hainbat enpresa eta pertsona ekintzaile, ideiak partekatu ahal izateko eta gauzak iradokitzeke. Saio guztiak sektorean aditua den pertsona batek dinamizatuko ditu, eta saio bakoitzak eztabaidatzeko gai nagusi

bat izango du. Modu horretan, denbora hobeto aprobetxatzea ahalbidetuko da. Saioak bi egunean behin izango dira, 12:00etatik 14:00etara, Getxo Elkartegian, doan. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da. Abenduaren 1ean egingo den lehenengo saioaren helburua hau izango da: beharrak hautematea eta modu sortzaile zein dinamikoan sarea sortzea. Horrez gainera, *Getxo Meeting*eko hurrengo saioetako gaiak zehaztuko dituzte. ◀

Yoga-ikastaroa eta artisautza-azoka, azaroaren 27an

Udagoien honetan, ekimenez gai-unezka dabil Algortako Utopian aretoa. Azaroaren 27an *Tukutu Market* azoka egongo da, Errotatzuko poligonoan duten aretoan, 10:00etatik 14:00etara. Bertan, eskuz egindako gauzak erosi ahal izango dira.

Egun horretan bertan ere, yoga egiten ikasteko tailerra egongo da, 10

euoren truke, 11:00etatik 12:45era. Irakaslea Maite Ikarán izango da. Bestalde, hilaren 26an eta 27an, zapatuan eta domekan, Blanca Arrietaren *Despacio* dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, 8 euoren truke. Zapatuko emanaldia arrastiko 08:00etan izango da; hurrengo egunekoa, domekakoa, berriz, 19:00etan hasiko da. ◀

info+: www.utopiangetxo.com / 944 303 194

Euskal Fondoak diru-laguntza jasoko du aurten ere

Nikaraguan saneamendu-proiektu bat garatzeko 51.000 euroko diru-laguntza emango dio Udalak Euskal Fondoak Euskal Entitate Kooperanteen elkarteari. Diru kopuru hori Nikaragua-ko Tipitapa udalerriko Yuriz Ordoñez auzora heltzen den ura batzeko proiektu bat garatzeko izango da. Proiektuaren hobekuntza 6.900 pertsonentzat izatea aurreikusten da; horietatik 3.700 emakumeak dira; gainontzekoak, gizonak. Helburua da umeen eta talde ahulen sabeleko eta arnasketako gaixotasunen eraginak murrizten laguntzea.

Getxoko Udala 2001ean egin zen Euskal Fondoko kide, eta orain arte sustatutako jarduerak gehienak Nikaraguako Tipitapa udalerrian egin dira. Getxoko Udalak gaur artean emandakoagaz bultzatu dituzte auzo batzuetan saneamendu azpiegiturak egokitzea, liderrak hezteak eta udal-planifikazioa, besteak beste. ◀

Zahartze aktiboa sarituko du Getxoko Udalak aurrerantzean

Getxora heldu da Puntuan programa, osasuna eta bizitza aktiboa sustatzeko Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimena. Horren helburua da saritzea zahartze aktiboagaz zerikusia duten ekimenakaz bat egiten dutenak. Hala, ibiltzeko saioetan, erorketa-tailerretan eta jarduera soziokultural ezberdinetan parte hartu duten gizon-emakumeak sarituko dituzte, Gizarte Zerbitzuetako udal-arloaren eta Getxo Kirolak lankidetzari esker. Horrez gainera, Puntuanek sariak banatzeko hiru hilabete behin egingo dituen zozketetan parte hartu ahal izango dute kirol-errezetaren bila osasun-zentrorra joandako pertsonak. Programak hartzen dituen jardueren eskaintza osoa ezagutu gura dutenek Puntuanen web orria kontsulta dezakete; edo informazioa eskuragarri dago Arriluzeko Gurutze Gorriaren bulegoetan eta Getxo Kirolakeko kiroldegietan. ◀



Romo kultur etxea barrutik ezagutzeko aukera egon da egunotan. Udalak jakinarazi duenez, eraikuntza-faseko 2B faseari amaiera eman diote orain dela gutxi, barruko guneak egokitzeko azken lanak egin ostean. Hala, orain, ekipamendu-faseko lanak hasi dituzte.

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18-48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA - 94 491 27 34

Gura izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45
Telletxe 1 94 460 27 41
Algorta

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Ideien sokadantza

**GORKA
MOSTAJO GALDUROZ**
Gizarte Langilea

Gazteok:
Erabakitzeko
mila bide dugu

Ginebratik idazten ari natzaizue; politikan gazteen parte-hartzea sustatzeko erronkaren inguruan NBek antolatutako *Human Rights, Democracy and Rule of Law* forumean entzule gisa parte hartu eta gero. Datu bat aipatzearren: munduko parlamentuetan 30 urte azpiko ordezkariak %2 dira, 30 urtez azpikoak munduko populazioaren %50 baino gehiago garenean, harrigarria. Foruma oso lagungarria izan zait hainbat herrialdetako ordezkariak botatako esperientziak gure errealtatearekin konparatzeko: Oinarritik hasiz: hainbat herri ez daukate demokraziarik. Aipatu behar da ere beste hainbat herri ez daukatela kalitatezko hezkuntzarik, gazteriak gaitasun kritikoa garatu ezin duelarik. Beste batzuetan, parlamentari izateko adin minimo bat exijitzen da, bozkatzeko eskubidearen adinetik harago doana. Herrialderen batek Gazte kontseiluak eskatu ditu gazteriak politikan gehiago parte hartzeko aukera izan dezan. Belgikako ordezkariak aipatu du parlamentuetarako zerrendetan gazteentzako kuotak ezartzen dituztela, edo Herbehereetakoak aipatu du Holandan gazteek euren ordezkaria bozkatzen dutela euren kezkak Gobernuari era zuzenean azaltzeko. Egia da gure parlamentuan gazteontzako kuota minimorik ez dugula, edo gazteek gure ordezkariak aukeratzen ez dugula. Baina, bozkatzeaz gain: manifesta gaitetzeke, gizarte zibileko elkarteetan parte har dezakegu, alderdi politikoetan edo beraien gazterietan parte har dezakegu, hautetsiak izan gaitetzeke edo Euskadiko Gazteria Kontseiluan parte har dezakegu ere. Gazteok badugu politikan parte hartzeko hainbat era, beraz paso egiten duena gero ez daitela sofatik kexa. Gazte: Politikaz paso egin dezakezu, baina politikak ez du zutaz pasorik egingo. Zure esku dago. ◀

Getxo

Bilboko Portuko

Agintaritzak 9.324 metro koadroko lursail bat eman dio Getxoko Udalari, doan.

Bilboko Portuko Agintaritzak lursail bat doan eman dio Getxori; baita Santurtziri eta Sestaori ere. Eremu horiek guztiak aipatutako udalerriek erabiltzen zituzten, zegozkien emakiden edo portuaren baimenen bidez; orain, dagozkien izapideak egin ostean, ofizialki udalerrri horien jabetzakoak izango dira; gaur egungo erabilera publikoaren eta interes sozialaren helburuetarako erabil ditzaten.

Getxoren kasuan, Bilboko Portuko Agintaritzak Udalariei eman dion lursailak 9.324 metro koadro ditu, guztira, Aurriluze aurrean: zabuak eta hiri-altzariak dituen lorategi-eremu bat eta



Bilboko Portuko Agintaritzak Arriluzeko landa eman dio Udalari.

aparkaleku publiko txiki bat, Begoña-ko galerien inguruan.

Arduradunek jakinarazi dutenez, dagozkien izapideak datorren urte-akabuan amaitzea aurreikusi dute. Horiez gainera, beste 39.100 metro koa-

dro emango ditu erakundeak. Kasu horretan, Portugaleteri (Txurruka kaiko igerilekuak), Leioari (Lamiako ingurabidea) eta Santurtziri (Sardinera pasealekuaren lur-erazketa) emango dizkie lursailak. ◀

Gazteraiki topaketak aurkeztuko dituzte, zapatuan

Abenduaren 9tik 11ra arteko aste-
akabuan, Gazteraikei Euskal Herriko
gazte-mugimenduen autogestio-topa-
ketak izango dira Barañainen (Nafa-
rroa). Hori dela-eta, Algortan dauden
hainbat proiektu alternatibo aurkez-
tuko dituzte zapatu honetan, hilaren
26an, Algortako Tellagorri plazan. Eki-
mena 12:00etatik 15:00etara artekoa

izango da, eta horretan, proiektuak aurkezteaz gainera, topaketen berri ere emango dute. Jakinarazi dutenez, topaketetara joateko autobus-zerbitzua eskainiko dute; halere, sarrerak erosteko azken eguna hilaren 30a izango da; Algortako Hator eta Leioako Kurkudi tabernetan daude salgai, 25 euroren truke; autobuserako zerrendak ere, hor. ◀

Barne-Barnetik Fest jaialdia egongo da zapatuan, Txorimalon

Zapatu honetan, hilaren 26an, Barne-Barnetik Fest jaialdia antolatuko dute Getxoko Txorimalo gazte-txean. Hala, hiru euroren truke, gune autogestionatura hurreratzen direnek Drop! eta Worth It musika-taldeakaz gozatzeko aukera izango dute. Hardcore musika emanaldi horiek arrastiko 09:00etan hasiko dira. ◀

TXIBERRI
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA



AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

txakoli
mota
gane
txakolina

TX

Leloa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com



GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
Eraikuntza zerbitzu integralak
Ileeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 - 607 952 977
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz



LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A beheka, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 · 94 467 17 13
 luberri@luberri.biz
 www.luberri.biz

AIXERROTA BHI IKASTETXEA
 Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
 Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)
 Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86



Itsasertzetik

GUILLERMO
MALAINA MARTINEZ
Irakaslea

Zergatik hil behar dira langileak lanean?

Denok ditugu esperientziak, onerako zein txarrerako izan daitezkeenak, baina horiei guztiei esker pentsamendu kritikoa gorpuztuz doa gure burmuinean. 1999ko otsailaren 18an izan nuen horietako bat. Ordenagailuari begira nengoen eguneko albiste arrunt bat idazten, egunkariko zuzendaria arinka irten zenean bere bulegotik. Hiru langile hilak ziren Loiuko aireportu berriaren eraikuntzan. Bi kazetari eta bi argazkilari bertaratu ginen, baina orduan Sondikan zegoen aireportuan iturri ofiziala iturri mutua zen..

Istripua jazotako lekua bilatzeari ekin genion, eta bilaketak Derioko San Esteban auzoraino eroan gintuen. Bide ertzean aparkatu genuen autoa, aireportu berrirakoa asfaltatu gabe baitzegoen. Oinez, euripean eta lokatzez belaunetaraino, istripuaren lekura hurbildu ginen harik eta zinpeko zaintzaile batek sartzea galarazi zigun arte. Berandu samar. Ikuskizun tristetia ikusi ahal izan genuen. 300 metrotara edo, zulo handi baten goialdean, hildakoen zenbait lankide zeuden, behean, hondeagailu batek lurra mugitzen zuen bitartean gorpuen bila. Burumakur, Sondikako aireportura abiatu ginen. Bidean, alabaina, espero ez genuena topatu genuen. Krudelkeriaren metafora bailitzan, Derioko hilerri ondoan, berotegi soil batzuen artean, hildakoen lankideak eta familiak zeuden. Bide-bazterrean, baztertuta.

Ia 18 urte geroago egoera hartaz oroitzen naiz langile baten heriotzaren berri dudanean. Aurton soilik, Hego Euskal Herrian, 51 hil dira. Arrazoiak arrazoi, enpresei eta administrazioei sentsibilitate handiagoa eska dakieke, euren esku dagoen guztia egiten dutelako diskurtsoa ez baita inolaz ere sinesgarria, ez 51 hildakoekin, ez XXI. mendean. ◀

Erandio

Epailea, auzian

EAEko Auzitegi Nagusiari

Jon Iñaki Rodríguez bake-epailearen jarrera azter dezan eskatu dio Udalak.

Erandioko Udalbatzaren gehingoak onartu du EAEko Auzitegi Nagusiari eskatzea Jon Iñaki Rodríguez udalerriko bake-epailearen jarrera iker dezan. Erabakia justu-justu atera zen, boto batengatik; PSE-EE, Ganemos Erandio, EH Bildu eta atxiki gabeko zine-

gotzia alde agertu ziren; EAJ eta PP, aurka. Halere, Ez Ohiko Udalbatzak gaiaren inguruko beste puntu bi atzera bota zituen, PSE-EEK aurka bozkatu zuelako. Hala, sozialistek uko egin zioten esateari pasa den irailaren 25eko hauteskunde-egunean auzokide bategaz izandako eztabaidan Rodríguezek liskarra eragin zuenik edo partzialtasunez jokatu zuenik, auzokideak salatu zuenez; hori EAEko Auzitegi Nagusiak ikertu behar duelakoan. Modu berean, «horrelakorik errepikatu ez dadin» eskatzeari muzin egin zioten. ◀

Emakumeenganako indarkeria matxista salatzeke ekimenak

Barikuan azaroaren 25a izango da, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Hala, Erandioko Emakumeen Elkartek elkarretaratzea antolatuko du eguerdian, Irailaren 23a plazan. Era berean, 18:00etan zineforuma egingo dute elkarrearen egoitzan. Aurreko egunean, Udalbatzak gaiaren inguruko adierazpen instituzionala eztabaidatuko du. Eguenean ere, Clara Campoamor aholkularitza juridikoa aurkeztuko dute 18:00etan, Altagako metroaren aurrean, Emakunderen autobusean. ◀

Leioa



Martitzenean, auto-ilara egin zuten Lamiakoko beirategiko beharginek.

Bilbo bete gura dute Vicrilako langileek

Zapatu honetan manifestazioa egingo dute; 11:00etan aterako dira plaza eliptikotik.

Lamiakoko Vicrila beirategiaren egoera larria salatzeke asmoz, mobilizazioak egiten jarraitzen dute bertoko langileek. Besteak beste, zapatu honetan, azaroaren 26an, jendetza batu gura dute Bilboko kaleetan; 11:00etan manifestazioa egingo dute Moyua plazatik abiatuta, Arriaga antzokiraino. «Aste-akabuan egitea erabaki genuen, langileok senideakaz batera parte hartu ahal izateko; bide batez, EAEn desindustrializazioa abiadura bizian ematen dabilela azaleratu gura dugu», adierazi du Iñaki Icaza Vicrilako langile-batzordeko presidentek.

Beharginen ordezkariak ohartarazi duenez, abenduaren erdialdean egoera «jasangaitza» bihurtuko da,

«gastuak diru-sarrerak baino handiagoak izango direlako». «Enpresako zuzendaritzak ikusten duen irtenbide bakarra produzitzeari uztea da; hila-bete batean lan egin eta hurrengoan gelditzea gura dute», adierazi du Icazak. Hala, Lamiakoko beirategiaren iraupena bermatu ahal izateko, diruz laguntzea eskatu zioten beharginek Eusko Jaurlaritzari, azaroaren 14an egindako bileran. Icazaren berbetan, «etsigarria» izan zen bilkura: «dirua eskatu genien, eta Europak horrelakorik egiten uzten ez duela erantzun ziguten. Kontuak horrela, bankuek finantziazio-lerro berriak ezar ditzaten, bitartekaritza-lana egin dezala galdengin genuen», azaldu du. Vicrila «zulo-tik irten» dadin, gehiago inplikatzeko eskatzen diote Eusko Jaurlaritzari.

Azaroaren 14an ere, Leioako Udalbatzak hartutako erabakia goretsi dute langileek. Jaurlaritzari laguntza eman dezan eskatzea onartu zuten, aho batez, alderdi politiko denek.

info+: hiruka.eus/bereziak/vicrila

Aurton ere eraso matxistei aurre egingo diete ikasleek

Udalerriko hainbat ikastetxetako neska-mutilek biolentzia matxista salatuko dute, azaroaren 25ean. Udalaren Berdintasun Saila hezkuntza-zentroakaz elkarlanean dabil, hainbat ekintza prestatzeko. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean, leioztar denei zuzendutako kale-agerraldian parte hartuko dute ikasleek, besteak beste. Elkarretaratzea 12:00etan izango da, Boulevarden; Andrak emakumeen elkarteak ere parte hartuko du, ohi duen legez, Udalagaz batera.

Ekimenei jarraituz, ikastetxe denetan egingo dute tapoi-batzea ikasturte osoan; kartel-lehiaketa ere antolatu dute, jaietan erabiliko den eraso sexisten aurkako irudia aukeratzeko asmoz. Bestalde, emakumeenganako indarkeriaren kontrako pankartak, banderatzokak eta kartelak ipiniko ditu Udalak; horrez gainera, pegatinak eta



Azken sexu-erasoa salatu zuten leioztarrek.

egutegiak banatuko dituzte. Amaitzeko, abenduaren 3an eta 17an, 10:00etatik 14:00etara, emakumeei zuzendutako autoestimu-tailerra eskainiko du Berdintasun Sailak. Horretan parte hartu gura dutenek izena eman dezakete, azaroaren 25a baino lehenago, Gizarte Zerbitzuen udal-bulegoan (Inaurratzaga, 1); bost euroko fidantza eskatuko zaie.

info+: berdintasuna@leioa.net

Neska-mutilen artean inkesta egiten dabil Ernai mugimendua

Gazte leioztarren artean galdeketa egiten dabil Ernai, *Bagoaz Leioa berria eraikitza* goiburupean. «Udalerriko neska-mutilen iritzia entzun, irakurri eta konpartitzea» da ekimenaren helburua, sustatzaileek adierazi dutenez. «Hainbat gairen inguruan galdetzen diegu. Leioan egon daitezkeen korapilo batzuen inguruko iritzia jakin gura dugu, eta gazteriak izan ditzakeen sentsazioak ere bai», azaldu dute. Irailean abiatu zuen inkesta Leioako Ernaik, eta azaroaren 26a izango da egiteko azken eguna; emaitzakaz diagnostikoa egingo dute.

galdeketa: tinyurl.com/zwr26as

Domeka goizetan paseatzera irtengo dira berbaldunak

Leioan euskararen erabilera bultzatzea da Berbaldun egitasmoaren helburua; oraingo honetan, udalerriko inguruak ezagutzeko ibilaldiak edo txangoak egingo dituzte. «Asmoa da domeka goiza euskaraz berba egiten pasatzea eta Leioa inguruan dauden txoko polit, baina, askotan, ezezagunak ezagutaraztea», azaldu dute. Domeka honetan, azaroak 27, Leioa abiapuntua eta helmuga izanda, Getxo eta Berangoko lurretan ibiliko dira. Irteera goizeko 10:00etan izango da, Sako-neta kiroldegi aurretik; lehenago, ize-na ematea beharrezkoa da.

izen-ematea: berbaldun.leioa@gmail.com

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

hau hezkuntzatik
ander deuna batxilergora



IKASTOLA

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Sopela

Euskararen Astea prest daukate

Euskararen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko, kultur eta kirol-ekitaldiak antolatu ditu Udalak; bideo-emanaldia, bertsoak, antzerkia, dantza eta herri-kirolak egongo dira.



Besteak beste, *Gelajauziak* ikuskizuna egongo da, Kurtzio kultur etxean. © KUKAI DANTZA

Egitaraua

Abenduak 1, eguna

19:00 *Ibilbide toponimikoa* bideoaren aurkezpena eta berbaldia, Kurtzio kultur etxean. Doan.

Abenduak 2, barikua

20:00 Bertso-jira musikatua, udal-pilotalekuko tabernatik hasita.

Abenduak 3, zapatua

13:00 Herri-kirolak, udaletxeko plazan.

20:00 *Gelajauziak* eta *Sorbatza* ikuskizunak, Kukai dantza-taldeagaz, Kurtzion. Sarrera: 6 euro.

Abenduak 4, domeka

13:00 Herri-kirolak, udaletxeko plazan.

12:30 / 18:30 *Haizearen herrira* umeentzako antzezlanak, Pupu eta Lore pailazoakaz, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3 euro (umeak) / 5 euro (helduak).

Abenduak 9, barikua

20:00 *Francoren bilobari gutuna* antzezlanak, Artedramagaz, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 8 euro.

Arazo larriak ei daude udal-euskaltegian

EH Bilduk «hainbat irregulartasun» azaleratu ditu; alkateak ez du erantzunik eman.

Azken hilabeteetan, Udal Euskaltegiaren inguruan hainbat kexa jaso ditu Sopelako EH Bilduk, bertan ikasten dabilen ikasleen zein ikasle ohien aldetik. Besteak beste, koalizio abertzaleak azaldu duenez, «oso ohikoa da irakasle batzuen kontratazioa hilabeteko atzerapenagaz bideratzea, behin ikastaroa hasita». Horrez gainera, HAEeko ikasleei

100 euro kobratzen omen diete materialarengatik, «nahiz eta matrikula osoa eta ikastaroaren kostua diruz lagunduta dauzkaten». Bestalde, Sopelako EH Bilduk salatu duenez, zenbait ikaslek «tratu desegokiak jaso dituzte, eta akademikoak ez diren arrazoiengatik mailaz aldatu dituzte». Horregatik guztiagatik, euskaltegiko zuzendaritza eta administrazioa aldatzea eskatu diote koalizio ordezkariek Udalarari.

Bestalde, Gontzal Hermosilla EAJ-ko alkateak «oraingoz, gai honen inguruan» berba egiteko asmorik ez daukala adierazi du.

info+: sopela.ehbildu.eus

Azaroaren 25ean puxikak askatuko dituzte, udaletxean

Emakumeenganako indarkeria salatzeko asmoz, azaroaren 24tik 26ra, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Udalak eta Itzartu elkarteak. Gaur, eguna, Sarah Gavronen *Sufragistas* (Erresuma Batua, 2015) filma ikusgai egongo da, Kurtzio kultur etxean, 18:00etan. Bihar, barikua, puxikak askatuko dituzte eta adierazpena irakurriko dute, 19:00etan, udaletxean. Ostean, mahai-ingurua egongo da. Egitarauagaz amaitzeko, zapatu honetan, *Cuaderno en blanco* antzezlanak eskainiko du Hika taldeak. Hitzordua 20:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean; sarrerak 5 euroan salgai daude.

Ander Deuna Eguna ospatuko dute azaroaren 30ean

Hilaren 30ean, eguaztena, Ander Deuna Eguna ospatuko dute sopelotarrek. Hala, goizeko 11:00etan abiatuko da txistularien kalejira, udaletxetik. Baselizara heldu ostean, 12:00etan, meza entzuteko aukera egongo da. Ostean, ohorezko aurrekua dantzatu eta hamaiketakoagaz batera, erromeria egongo da. Ohi den legez, baselizara joan zein herrigunera bueltatzeko autobus-zerbitzua ipiniko du Udalak. Urbaso kafetegi aurreko bus-geltokitik abiatuko dira autobusak, 11:00etan eta 11:30ean. Ekitaldiak amaitzean, 13:30ean eta 14:00etan egingo dute bueltako bidaia.



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ
Abeltzaina

Itxuraldatutako fazismoa dator

Bi hamarkada indartzen dabilela. Orain arte Europa gehiengan duen gorakada aipatzen zen. Gorakada bere indar instituzionala, boto eta botere pilaketa. Trump-en irabazpenarekin munduko nazio boteretsuenean instalatzen da. Ematen du, ez dugula guztiz sinisten gurekin ere badoala.

Gure ondoan, gure agintariekin piztu eta mantendu, eta gurekin ez ei doazen gerretatik ospe egin nahian, milaka jende hiltzen ari da harresiak ezin gainditu. Milaka daude kontzentrazio eremuetan. Ukrainian ejerzito neona-zia. Lapurrak gobernuetan.

Etxeko sukaldea garbitu baino lehen, ez hasi auzokoa garbitzen.

Irunbat
galp energia

Lolola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

XURRUT

Pizza Bar · Musika zuzenean

946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurrut.com

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.tailleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service

Car Service

Lemoiz

Euskararen astea, prest

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeaz gainera, aste osoko egitaraua prestatu du Udalak.

Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a. Hala, Lemoizko Udalak gure hizkuntzaren aldeko hainbat ekimen antolatu ditu egun horren atarian; eta astebeteko egitaraua osatu du, udalerriko neska-mutil zein heldu denen gozamenarako.

Lehenengo jarduera astelehenean izango da, hilaren 28an. Egun horretan, *Petresku etzi ez etsi* izeneko ikuskizuna egongo da gozagai Armintzako kultur etxean. Antzezlanaren umeei begirakoa da, eta 17:30etik aurrera egongo da ikusteko aukera. Egun bi beranduago, azaroaren 30ean, eguaztenean, neska-mutil gaztetxoek zu-



Akabuko martxea ikusteko beste aukera bat.

zendutako ikuskizuna antolatu dute. Orduan, Monda Lironda pailazo-bikoteak *Apika* lana taularatuko dute Lemoizen. Hala, horretaz gozatu gura dutenek 17:30ean hurreratu beharko dute Urizarreko gelara.

Hurrengo egunean, abenduaren 1ean, Urizarreko gelan transhumantziaren inguruko dokumental bi proiektatuko dituzte: *Dominica* eta *Akabuko martxea*. Lan horiek biak ikusi gura dituztenek, arrastiko 07:00etan

Egitaraua

Azaroak 28, astelehena

17:30 *Petresku etzi ez etsi* haurrentzako ikuskizuna, Armintzako kultur etxean.

Azaroak 30, eguaztena

17:30 Monda Lirondaren *Apika* ikuskizuna, Urizarreko gelan.

Abenduak 1, eguna

19:00 *Dominica* eta *Akabuko martxea* dokumentalak, Urizarreko gelan.

Abenduak 3, zapatua

18:00 Disko-festa eta txokolate-banaketa, Armintzako frontoian.

egon beharko dute bertan. Azkenik, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, jaialdia egingo dute, 18:00etatik aurrera, Armintzako frontoian; disko-festa egongo da eta txokolatea banatuko dute bertan. ◀

info+: www.lemoiz.eu

Barrika

Hilaren 26an, zapatua, ospatuko dute Euskararen Eguna

Euskararen Eguna dela-eta, egun osoko egitaraua prestatu dute azaroaren 26rako, zapatarako, Barrikan. Hala, egunari hasiera emateko, bertso-triki-poteoa abiatuko dute eguerdiko 12:00etan. Bi ordu eta erdiz ibiliko dira kantuan eta alai herriko tabernetako inguruetan; ondoren, 14:30ean, tripak asetzeko hitzordua izango dute. Izan ere, ordu horretan, herri-bazkaria egingo dute Iparralde tabernan; horretarako txartelak aldeztu aurretik erostea beharrezkoa zen, hilaren 20a baino lehenago, 15 euroan. Horren ostean, udalerriko neska-mutil txikientzako ikuskizuna egongo da Nagusien Etxean. Bertan, Irrien Lagunen *Euskararen taupadak* ikuskizunak umeei irri eragingo die, 18:00etatik aurrera. Azkenik, Euskararen Egunari amaiera emateko, txokolate bero-beroa banatuko dute auzotarren artean, arrastiko 07:00etatik aurrera. ◀

info+: www.barrika.eu

Gorliz

HAPOren Aurrerapena ikusgai dago, daborduko, Sertutxenan

Gorlizko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) Aurrerapena daborduko kontsulta daiteke Sertutxena kultur etxean. Erakusketa bertan egongo da datorren urtarilaren 16ra arte. HAPOren Aurrerapenak 5 alternatiba edo proposamen egiten ditu; hala, Sertutxenan aukera horiek guztiak azaltzen dituen kartoi-lumazko 12 kartel ikusi ahal izango dira. Erakusketak ordutegi berezia izango du, erakusketa aretoan bestelako jarduerak ere egingo dituztelako. Gainera, Plana jendarteratzeko eta Gorlizko elkartearen eta auzokideen iritzia eta iradokizunak jasotzeko tai-



Erakusketa Sertutxenan ikus daiteke.

lerra egingo dute abenduaren 1ean, eguenean, 17:00etatik 20:30era arte; parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute. ◀

izena emateko: participacionPGOU@gorliz.net

Gorlizko ilunabar bat daroan postala argitaratu dute

Gorlizko hondartzatik ateratako ilunabar baten irudia daroan postala argitaratu du Correosek. Horretan, dunen artean hareatzara joan ahal izateko egurrezko pasabidea ikus daiteke, hondoan, eguzkiaren azken izpiak ikusten dira. Postalaren 1.000 ale kaleratu dituzte, guztira; A tarifa-gaz, espainiar estatuko edozein lekura bidaltzeko; eta beste 600, B tarifa-gaz, Europa osora helarazteko, 1 euro eta 1,6 euroan, beren-beregi. Gorlizko Correoseko bulegoan eta turismo-bulegoan eros daitezke. Ekimenaren helburua da kostaldeko herri honen erakargarritasunak ezagutzera ematea. ◀



Eguaztena, Ander Deuna Eguna barrikoztarrentzat

Urtero legezt, hilaren 30ean, eguaztena aurton, Ander Deuna Eguna ospatuko dute Barrikako Goierri auzoan. Horrenbestez, 11:00etan meza egongo da santu horri gorazarre egiteko, basilizan bertan. Ostean, 11:45ean, kantuen emanaldia eskainiko du Aita Gotzon Abesbatzak. Ondoren, Inazio Vidal eta Fredi Paia bertsolariek jardungo dute, mokadutxo hasi baino lehenago. ◀

Kontzertuak antolatzeari utzi dio Xurru tabernak

Urte askoan Uribe Kostako zuzeneko musika-emanaldiak eskaintzen erreferentziatzeko lokala izan den Gorlizko Xurru tabernak kontzertuak antolatzeari utzi dio; hala jakinarazi du sare sozialen bidez.

Azkenaldian antolatutako emanaldietan «asistentzia eskasa» dela-eta, kontzertuetara entzule gutxi hurreratzaren direlako, hartu dute erabaki hori

Xurrukoek. Halere, tabernako arduradunek idazki batez jakinarazi dutenez, ez dute baztertzeko etorkizunean ohitura hori berreskuratzea: aste-akabuetan zuzeneko musika-emanaldiak berriro antolatzea. Dena den, aitortu dutenez, «ez dirudi hala izango denik». Albiste hori eman eta gutxira, tabernako jarraitzaile ugari beren atsekabea agertu dute sare sozialetan. ◀

Berango

Moreaga parkeko jolas-eremua estaltzeko iritzia jaso guran

Moreaga parkeko jolasgunea estaliko du Berangoko Udalak. Horren helburua da «jolastoki estali hori Berangoko bizilagun guztiek gozatzeko leku eroso eta segurua bihurtzea». Daborduko, proiektua ikusgai dago Udalaren webgunean; oster, arduradunek jakinarazi dutenez, auzokideen iritzia

jaso gura dituzte, egin beharreko hobekuntza guztiak proiektuan txertatu ahal izateko. Iradokizunak bidaltzeko aukera dago udal-webgunean. Inkesta moduan, auzokideek euren iritzia bidali ahal izango dituzte, abenduaren 12ko 12:00ak baino lehenago. ◀

info+: www.berango.net

Uribe Kosta

«Ez da megapark bat»

Anabel Landa Berangoko

alkateak argi utzi gura du: «Landaideko proiektua ez da megapark bat izango, jarduera ekonomikoak garatzeko gunea barik».

Berangon eraikitzen dabilen megaparkaren kontrako jarreraren hartzeko eskatu zien hila-bete hasieran EH Bilduk eskualdeko udal guztiei. Horren aurrean, Anabel Landa Berangoko alkateak bere harridura agertu du, udalerriko Lurralde Zati Plana behin betiko onartzeko bozketan abstenitu egin zelako koalizio abertzalea. Modu berean, Landak argitu gura izan du Landaide gunean eraikitzen dabilena ez dela megapark bat, baizik eta «jarduera ekonomikoak garatzeko gunea» bat.

Berangoko alkatearen ustez, Landaidean eraikitzen dabilen proiektua «aukera» bat izango da bertoko auzokideentzat, «baita eskualde osoko bizilagunentzat ere; bai lanpostuen aldetik eta eragingo duen erraztasunaren aldetik ere bai». Eskualdeko EH Bilduk azaro hasieran adierazitakoaren harira, Anabel Landa «harrituta» agertu da: «Lurralde Zati Plana behin betiko onartzeko Udalbatzara eraman genuen bozketan 2014ko abenduan, eta horretan, EH Bildu abstenitu egin zen. Hori dela-eta, ez dut ulertzen noiztik duten horiek desadostasun hori, orain arte ez



Dendez gainera, «gasolindegia bat eta bulego-eraikin bat egiteko asmoa» dagoela esan du Landak.

baitute hori agertu, Udalean behintzat, ez». Ostera, koalizio abertzalekoek uste dute gunea horretan sortuko diren lanpostuak «prekarioak» izango direla; halere, Landaren ustez hori ez da hala izango, eta, ziurtatu duenez, proiektu horrek ez ditu «inola ere» udalerrian lanpostuak galaraziko.

Jarduera ekonomikoetarako gunea

Bestalde, Berangoko alkateak argi utzi gura du Landaide gunean garatuko dena ez dela megapark bat izango, jarduera ekonomikoak garatzeko gunea bat barik. Azaldu duenez, bertan partzela batzuk egongo dira, eta gura duten enpresek horiek erosi ahal izango dituzte. «Ez da bakarrik komertziala

izango, hirugarren sektoreari begira-ko gunea ere bada», argitu du. Hala, gaineratu duenez, dendez gainera, gasolindegia bat eta bulegoen eraikin bat eraikitzeke interesa badago. «Dena ez da komertziala izan behar».

Bestalde, orain dela aste batzuk obretan aztarna arkeologikoak aurkitu zituztela ohartarazi zuen EH Bilduk. Horren harira, alkateak dio ez dela inolako berririk horren inguruan. «Obrak egiten dabilen enpresagaz eta Aldundiko Kultura Sailagaz harremanetan ipini naiz, eta inork ez daki ezer horren gainean», azaldu du. Halere, norbaitek «benetan» horren berri izango balu, Aldundiari abisua emateko eskatu du alkateak.

Ekoguneren ikastaroetan izena eman daiteke

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Jasangarritasun Sailak Ekogunea ikastaroen izena emateko epea zabaldu du. Ikasturte honetako bigarren lauhilekorako eskolak izango dira, eta horietakoren batean parte hartu gura duenak abenduaren 20ra arte egin ahal du izen-ematea. Aukeren artean, honakoak daude: Hasiberrientzako jostuntza, Hasiberrientzako brikolajea; Aurreratuentzako jostuntza; Zure arropa birziklatzen ikasi; eta Jasangarritasuna eta kakorratza. Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan errolatuta daudenentzat baino ez dira ikastaro horiek, eta doakoak dira.

Komertzial askoren praktika oldarkorrez ohartarazi dute

Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuak kexa eta salaketa ugari jaso ditu etxeetara salmenta «oldarkor eta engainagarriko» estrategiakaz joaten diren gas- eta elektrizitate-konpainia batzuetako komertzial batzuen jokaeren inguruan. Orain arte detektatutako praktika txarrek promesa bat dute gako nagusitzat, hau da, fakturen beherapen bat edo tarifa onuragarriago bat aplikatzea. Halere, Kontsumobidek ohartarazi duenez, «ezkututzen duten benetako asmoa da kontratu bat sinatzea, beste konpainia batera aldatzeko». Horrek ez du bermatzen ordainagiriaren murrizketarik. Horren harira, hainbat gomendio eman dituzte.

AZAROAREN 28tik
ABENDUAREN 2ra

ZINE KONTARI 2016

del 28 de NOVIEMBRE
al 2 de DICIEMBRE

Azaroak 28 / 19:00 GAZTA ZATI BAT (2011) Gidoia: Jon Maia Zuzendaritza: Jon Maia	Azaroak 29 / 19:00 ZULOAK (2012) Gidoia: Ferrn Muguruza, Eder Rodriguez Zuzendaritza: Ferrn Muguruza	Azaroak 30 / 19:00 ARRIYA (2011) Gidoia: Alberto J. Gortiberea Zuzendaritza: Alberto J. Gortiberea	Abenduak 1 / 19:00 AMAMA (2015) Gidoia: Asier Altuna Zuzendaritza: Asier Altuna	Abenduak 2 / 18:00 ZIGORTZAILEAK (2010) Gidoia: Arantza Ibarra Zuzendaritza: Arantza Ibarra, Adolfo Aranda
---	---	---	--	---

EUSKARAZ EGINDAKO ZINE ZIKLOA

SARRERA DOAN | ENTRADA GRATUITA

TEATRO CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIA
 Kupula Aretoa | Sala Cúpula
 C/ Bertendona 3, bis - 6ª planta. Bilbao

ANTZAKITZAILEAK / ORGANIZATZAILEAK
LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

Uribe Kosta

Salatzeko, aukera asko

Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, hamaika ekitaldi.

Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak; egikoetan lagun izango dituzte Inola (Urduliz) eta Plentziako Sorginen Alabak talde feministako kideak, besteak beste. Hala, azaroaren 25ean, Uribe Kostako Mankomunitateak zazpi kontzentrazioa deitu du: 11:30ean, Berangon; 12:00etan, Barrikan; 12:30ean, Plentzian; 13:00etan, Gorliz; 13:30ean, Lemoizen; 18:30ean, Urdulizen; eta 19:00etan, Sopelan. Herrietako udaletxeen aurrean batuko dira, Berangon (metro-geltoki ondoan) eta Urdulizen (kultur etxean) izan ezik. Egun berean, gainera, hainbat antzezlan eta jarduera egongo dira kontzentrazioen ostean, Berangon, Barrikan eta Plentzian, besteak beste. Azken horretan, gainera, Mankomunitateak deitutako elkarretaratzeaz gainera,



Azaroaren 26an, gainera, Beldur Barik topaketa egingo dute Urdulizen.

Sorginen Alabak talde feministak manifestazioa egingo du, 19:00etatik aurrera, Eliz plazatik abiatuta.

Beldur Barik topaketa

Azaroaren 26an, zapatuan, herriz, Emakundek antolatutako Beldur Barik topaketa egingo dute Urdulizen, 16:30etik aurrera, kultur etxean. Ordu horretan ondoetorria egingo diete Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik ber-

taratutako gizon-emakumei. Ondoren, 17:00etatik 19:00etara, hainbat tailer egongo dira aukeran, berbarako: autodefentsa feminista, mutilentzako desahalduntzerako clown-tailerra eta perkusioaren boterea. Ostean, 19:15ean, performancea egingo dute, eta 19:30ean mokadutxoak eskainiko dituzte. Amaitzeko, 20:00etan Beldur Barik lehiaketaren ikus-entzunezkoen sari-banaketa egingo dute. ◀

Herriz herri

Berango

Azaroak 25, barikua

11:30 Kontzentrazioa, Berangoko metro-geltoki ondoan.

18:00 Tailer bereziak, Berangoeta kultur etxeko ludotekan. Sarrera, doakoa.

Gorliz

Azaroak 25, barikua

13:00 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean.

Plentzia

Azaroak 25, barikua

12:30 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean.

17:30 Argazkia, Eliz plazan, Sorginen Alabak talde feministak antolatuta.

19:00 Manifestazioa, Eliz plazatik Ontziola plazara, Sorginen Alabaken deialdia.

Urduliz

Azaroak 25, barikua

18:30 Kontzentrazioa, kultur etxean.

Azaroak 26, zapatua

16:30-21:30 Beldur Barik topaketa, kultur etxean, Emakundek antolatuta.

Barrika

Azaroak 25, barikua

12:00 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean.

17:30 Filma, hausnarketa eta askaria, Goierri, Emakumeen Hitzak elkarteak antolatuta.

Lemoiz

Azaroak 25, barikua

13:30 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean.



Nekane Balluerka doktorea da hautagai bakarra. © NEKANE BALLUERKA

Eguenean izango dira EHUren errektore-hauteskundeak

EHUren Hauteskunde Batzordeak behin betiko aldarrikatu du Nekane Balluerka doktorea aurkeztutako hautagaitza. Berarena izango da hauteskundeetara aurkeztuko den zerrenda bakarra. Hala, hautatua izateko, %33 baieztatu behar du behar du Balluerkak, azaroaren 24ko bozketan. EHUko arduradunek azaldu dutenez, boto-zenbaketa ez da egiten emandako boto-kopuruaren arabera,

baizik eta unibertsitateko talde desberdinei dagokien ehunekoa kontuan hartuta. Horrenbestez, 2.200 bat irakasle-ikertzaile (IRI) doktoreri botoen %56,25 dagokio, 315 bat IRI ez-doktoreri botoen %7,5. Gainerako IRIri, 3.000 bat lagun, botoen %2,09. Ikasleei, ostera, 40.000 lagun inguru, botoen %22,08; eta administrazio eta zerbitzu-etako langileei, ia 1.900 lagun, botoen %12,08. ◀

info+: Hiruka.eus/leioa

Atzeratu egin dute ospitaleko larrialdi-zerbitzua zabaltzea

Urte amaierarako aurreikusita bazegoen ere, Urdulizko Alfredo Espinosa ospitaleak azkenean 2017ko lehenengo hiruhilekoan ipiniko ditu martxan Larrialdiak, Laborategia eta Endoskopia zerbitzuak. Jakinarazi dutenez, erabaki hori hartzeko arrazoia da medikuntza-materialak hornitzeko lehiaketetan egondako atzerapena. Zerbitzu horiek abiatu ostean, apurka-apurka honakoak ere ipiniko dituzte martxan: Medikuntza ospitalizazioko zerbitzua, Etxeko ospitalizazioko zerbitzua eta KHA (kirurgia handiko ambulancia) ebakuntza-gelak.

Bestalde, Osakidetza azaldu duenez, ospitale horrek 22.397 pertsona artatu ditu lau hilabeteetan, hau da, zabaldu zenetik. Hortaz, batez beste, egunean 200 pertsona baino gehiago artatu dira osasun-zentro horretan. Modu berean, iragarri dutenez, joan den astelehenean, hilaren 21ean, bular-minbizia behatzeko unitate berria abian ipini zuten; tomosintedun mamografo bat eta Ekografo bat izango ditu. ◀

Uribe Kostak 644 bizilagun galdu ditu azken bost urteotan

Eustatek jakinarazitako datuen arabera, Uribe Kosta eskualdeak 169.114 biztanle ditu aurrean. Euskal Estatistika Erakundeak 2016ko urtarillaren 1a hartu du erreferentziaz kalkulu hori egiteko. Hala, 2011ko datuak alderatuta, eskualdeak 644 biztanle galdu ditu, populazioaren %0,38. Ostera, hamar udalerrietatik hirutan bakarrik jaitsi da biztanle-kopurua; Getxo da galerarik handiena izan duena, 79.815 biztanleetatik 77.759ra, 2.056 bidean galduta. Erandiok (-269) eta Plentziak (-47) murrizketa txikiagoak izan dituzte. Besteetan populazioa igo egin da; biztanleria irabazi duten udalerrien artean, Urduliz da auzokide gehiago lortu dituen, 498 urduliztar gehiago baitaude aurrean, 2011ko 3.630 erroldatuei batu zaizkienak. Beste herrietan honakoak izan dira biztanleria igoerak: Barrika (+31), Berango (+146), Gorliz (+143), Leioa (+346), Lemoiz (+163) eta Sopela (+401). ◀

info+: Hiruka.eus/uribe-kosta



Lirain abesbatzak Gorlizko elizan eskainiko du kantaldia. © LIRAIN ABESBATZA

Egitaraua

Getxo

11:00 *Un café con mi padre.com* esposizioa Igeretxe hotelean.

12:00 Kultura Eguna Itzubaltzeta/Romon.

20:00 Ondarreta Korala eta Zozoak abesbatza, Mesedeetako Ama elizan.

20:15 Areetxo Ganbera eta Irutasun Korala, Trinitarioen elizan.

Gorliz

20:00 Lirain abesbatza, Gorlizko elizan.

Leioa

20:00 Arima Kamerata, Juan Bautista elizan.

Sopela

20:00 Lagun Artean eta Mendibaiarte abesbatzak, San Pedro elizan.

Urduliz

20:30 Bilbobillies-en kontzertua, Tio Pepe estudioetan. Sarrera, 8 euroan.

Bidezko Zapatua

Fair Saturday jardunaldia egingo dute hilaren 26an nazioartean. Uribe Kostan ere 8 ekitaldi egongo dira, Getxon, Gorlizen, Leioan, Sopelan eta Urdulizen.

Artea eta kulturaren bitartez mundua aldatzeko eguna da *Fair Saturday* (Bidezko Zapatua); aurtan, hilaren 26an ipini dute hitzordua. Data horiaz «jao» zen Bilbon. Helburua da azaroaren azkenengo zapatuan jendartea mugiaraztea, *Black Friday* egunaren ostean. Bidezko Zapatua eki-

menean parte hartuko duen kultur ekitaldi bakoitzak lortutako etekinen zati bat proiektu sozial bati ematen dio, erakundeek edo artistek aukeraturako egitasmo bati, hain zuzen ere. Iazko arrakastaren ondoren, 10.000 sortzaile baino gehiagok parte hartuko dute aurtan, eta 400 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira espainiar

estatuko eta Hego Amerikako 100 herrian. Jaialdiaren sustatzailea den Solidarters Fundazioaren arabera, kultur balioaz gainera, 150.000 euro baino gehiagoko etekin osagarria gehituko zaio dozenaka ekimen solidariari.

Hala, *Fair Saturday*ren barruan, zapatu honetan (hilak 26), 8 kontzertu eta ekitaldi antolatuko dituzte, denora, Uribe Kostan. Bertoko abesbatzen eta koralen emanaldiak izango dira, gehienak; hala ere, marrazkigintzari lotutako erakusketa, country musika-saioak eta dantzari lotutako egun oso-

ko jardunaldiak egongo dira, Getxon, Gorlizen, Leioan, Sopelan eta Urdulizen. Saio guztietarako sarrerak doakoak izango dira, Urdulizkoa izan ezik, 8 euroan erosi ahal izango da Bilbobillies taldearen kontzerturako sarrera. Gaintontzekoetan, dohaintzak egin ahal izango dira. Esan legez, ekitaldion batuko duten ekarpenagaz lortuko dute dirua Gobernu Kanpoko Eran-deei emateko: Amigos de Silva, Zabal-keta, Madagascar Misiones Trinitarias, Cáritas, Coprodeli, Integrando eta Irrikiclow izango dira onuradunak. ◀

Eskulangintza-azoka, aste-akabuan, Areetan

Barikutik domekara bitartean egongo da Getxoko Eskulangintza Azoka Areetako Xake plazan ipini duten karpan. Aurtengoa 33. edizioa izango da, 80 artisauk parte hartuko dute, eta sarrera doakoa izango da. Hiru egunean, eskulangintza zaleek askotariko objektuak izango dituzte eskura. Izan ere, hainbat espezialitate erakutsiko dira: buztingintza, bitxiak, zeramika, ehuna, beira, metala, larrukiak... Guztira, 23 izango dira Getxon ikusi ahal izango ditugun eskulangintza-arloak. Antolatzaileek diotenez, askotarikotasuna da azokaren ezaugarrietako bat; hori dela-eta, leku askotako profesionalak batzen



Xake plazan dagoen karpan egingo dute azoka.

dira bertan, eta artisautza ulertzeko eta egiteko hainbat modu erakutsiko dituzte. Modu berean, aurtan ere, jarduera-egitarau zabala egongo da, izen handiko profesionalen ekimenez. ◀


info+: www.getxo.eus

Elurpean nobela plazaratu du Jokin De Pedro idazle algortarrak, misteriozko lana hori ere

Jokin De Pedro idazle algortarrak liburu berria argitaratu du, *Elurpean* izenekoa; lana Elkar-ek argitaratu du. Idazleak azaldu duenez, aurreko lanen hariari jarraituz, eleberri berria misteriozkoa da, «polizia bat du hari eramaille, eta izenak dioen bezala, elurpean, elur giroan kokatuta dago istorioa». Elurra da eleberriaren ardatz nagusia, horri lotuta dago istorioaren korapiloa, De Pedrok aitortu duenaren arabera. Euskal Filologian lizentziaduna eta Getxoko Aixerrota institutuko irakasle ohia da De Pedro. Fikzioaren munduan, polizi-eleberriaren eta beldurrezko istorioen bideetatik joan dira bere lan gehienak. ◀

Gabon Zaharreko saio berezia grabatuko du Plentzia Telebistak, zapatu honetan

Aurtan ere, Plentzia Telebistak saio berezia eskainiko du 2017ari ondoetorria egiteko. Kontuak hala, hitzordua ipini dute zapatu honetan, hilaren 26an, Gabon Zaharrean emango duten saioa grabatzeko. Hala, abenduaren 31ra arte kanpaiak entzuteko itxaron ezin dutenek ospakizun horretan txonbo egiteko aukera izango dute zapatuan, 19:00etatik aurrera, Ontziola plazan. Hirugarrenez egingo dute saio hori aurtengoagaz, eta azaldu dutenez, «umorea ez da falta izango». *Sketchez* beteriko gidoia osatu dute horretarako, eta horren barruan, David Crestelo Plentziako alkatearen parodia ikusi ahal izango da, besteak beste. ◀



SOPELA

Kontu-kontalarien ahotsak eta txotxongiloen mugimenduak uztartzen ditu antzezlan honek. © GORAKADA

Titirikontu kontari lana eskainiko du Gorakadak

Domeka honetan, azaroak 27, *Titirikontu kontari* ume-antzezlan eskainiko du Gorakada taldeak, Kurtzio kultur etxean. Hiru eta zazpi urte arteteko neska-mutilentzako ikuskizuna 18:00etan izango da, euskaraz; umeek 3 euro ordaindu behariko dituzte eta helduek, berriz, 5 euro.

Ricardo Combiren testuakaz egingako lanak hainbat ipuin ditu abia-

puntutzat: *Zapataria eta iratxoak*, *Barbantxo* eta *Urretxindorra*, hurrenez hurren. Bestalde, Reyes Moleres eta Leire Ucha aktoreek antzezlanean hainbat manipulazio-teknika erabiltzen dituzte: *bumaku*-a, itzalak, objektuak eta abestiak, barbarako. Gorakadak «Txinaraino eroango ditumeak, eta, bertan, txori baten txioak bizitzeko gozamina erakatsuko dio

enperadoreari», antzerki-taldeko ki-deek azaldu dutenez.

Horrez gainera, ikusleek pertsonaia fimiño baten abenturak eza-gutuko dituzte «erraldioen» mundubatean eta *zapatuende* baten magiaz gozatuko dute, errealitatea eraldatuz. Elementu horiek ikuskizun erraza, dibertigarria eta ausarta bihurtzen dute *Titirikontu kontari*. ◀



Azaroak 25

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna

Getxo

2016/11/24

12:00-14:00 eta 16:00-19:30 Informazioa banatzeko etxolak, Algortako Telletxe eta Areetako Xake plazetan.

19:00 *Mujeres víctimas de trata, mujeres refugiadas* izenburuko berbaldia, Algortako kultur etxean, Raquel Celis CEAR Euskadiko kideagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Ostean, *Sensaciones* izeneko performancea eskainiko dute, leku berean, Munduko Medikua elkarteko Ane eta Idoia Sainz-Trápaga ahizpakaz. Sarrera, doan.

2016/11/25

12:00-14:00 eta 16:00-19:30 Informazioa banatzeko etxolak, Algortako Telletxe eta Areetako Xake plazetan.

19:30 Kontzentrazioa, Areetako Bizkaiko Zubiko plazan, Gizatiar emakumeen elkarteak antolatuta.

Ordu berean, manifestazioa, Algortako Txiki-Otaegi (San Nikolas) plazaatik abiatuta; Bilgune Feminista, Haziak eta Mujeres sin Voz eragileek egin dute deialdia.

20:30 Manifestazioa, Areetako Xake plazaatik abiatuta. Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladak egin du deialdia.

21:15 Triki-poteoa, Branka Herriko Tabernatik.

2016/11/27

19:30 *Apasionadas* antzezlan, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan, Utopian taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Leioa

2016/11/25

12:00 Kontzentrazioa, Boulevarden, Udalak eta Andreak emakumeen elkarteak egin du deialdia.

Erandio

2016/11/24

18:00 *Clara Campoamor ahalularitza juridikoa* baliabidearen aurkezpena, Erandioko metro-geltokiko plazan. Gaztelaniaz. Doan.

2016/11/25

12:00 Kontzentrazioa, Irailaren 23a plazan, Erandioko Emakumeen Elkarteak deituta.

2016/11/26

20:00 *Cuaderno en blanco* antzezlan, Hika taldeagaz, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, 5 euro.

Berango

2016/11/25

11:30 Kontzentrazioa, Berangoko metro-geltoki ondoan, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak deituta.

17:00 Ipuin-saioa, Oihulari Klow'n taldeko Dorleta Kortazarregaz, Berangoeta kultur etxean. Euskaraz. Sarrera, doan.

18:00 Tailer bereziak, Berangoeta kultur etxeko ludotekan. Sarrera, doan.

2016/11/26

19:00 *Juegos de oficina* antzezlan, Itxartugaz, Berango Antzokian. Gaztelaniaz. Doan.

2016/11/27

18:00 *Akabo* umeentzako ipuin-saioa, Apika taldeagaz, Berango Antzokian. Euskaraz. Doan.

Gorliz

2016/11/25

13:00 Kontzentrazioa, udaletxe aurrean, Uribe Kostako Mankomunitateak egin du deialdia.

Plentzia

2016/11/25

12:30 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean, Mankomunitateak egin du deialdia.

17:30 Argakia, Eliz plazan, Sorginen Alabak talde feministak antolatuta.

19:00 Manifestazioa, Eliz plazaatik Ontziola plazara, Sorginen Alabak taldeak egin du deialdia.

Urduliz

2016/11/25

18:30 Kontzentrazioa, kultur etxean, Uribe Kostako Mankomunitateak egin du deialdia.

2016/11/26

16:30-21:30 Beldur Barik topaketa, kultur etxean, Enakundek antolatuta. Ikastaroak, performancea, mokadutxoa eta sari-banaketa egongo dira.

Erromeria-ikastaroa egingo du Trabuduk

Zapatu honetan, azaroaren 26an, eus-
kal dantzak praktikatzeko aukera emango du Trabudu Dantzari Taldeak; 19:00etan ipini dute hitzordua, Mendi-
guren plazan. Horrez gainera, pintxo-
potea egingo dute. ◀

Karakol-txapelketan izen-ematea, zabalik

Azaroaren 30era arte, karakol-txapelke-
ta gastronomikoan izena emateko au-
kera edukiko dute lapiko artean ibiltzea gustuko duten denek; abenduaren 8an izango da sariketa. Izena emateko, be-
rriz, kultur etxera joan beharko dute. ◀

Heroiak antzezlana, Txalo taldeagaz

Abenduaren 1ean, eguena, *Heroiak* antzezlana taularatuko du Txalo Pro-
dukzioak Taldeak, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Emanaldia arrastiko 08:00etan izango da, euska-
raz; sarrera, doakoa izango da. ◀


Sopela

2016/11/24

18:00 *Suffragistas* filma, Kurtzio kultur etxean, Itzartu emakumeen elkartweak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/11/25

19:00 Puxikak askatuko dituzte eta adierazpena irakurriko dute, udaletxean. Horren ostean, mahal-ingurua egingo dute.



Eriz magoak urte asko daraotza umeak eta helduak gozarazien. © ERIZ MAGOA

Eriz magoaren ikuskizuna, Algortan

«Euria eta hotzari aurre egiteko magia bezalakorik ez dago!» Bizarra Lepoan euskara elkarteko kideek diotenez. Zapatu honetan, azaroaren 26an, Eriz magoaren ikuskizun dibertigarriagaz gozatzeko aukera edukiko dute 5 urtetik gorako neska-mutilek. ◀

Noiz: Azaroak 26, zapatua.
Ordua: 12:00
Non: Algortako kultur etxea.
Sarrera: Doakoa.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Barrika

2016/11/25

12:00 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean, Mankomunitateak egin du deialdia.
17:30 Filma, hausnarketa eta askaria, Goierrin, Emakumeen HItza elkarteak antolatuta.

Lemoiz

2016/11/25

13:30 Kontzentrazioa, udaletxearen aurrean, Mankomunitateak egin du deialdia.

2016/11/26 - 12:00

Kantu-jira

Iparralde jatetxea | Barrika
ALBEK antolatuta. Josu eta Aritz Landetagaz, eta Barrikako pandero-joleakaz.

2016/11/26 - 12:00-15:00

Eraikuntza lanetan ari gara
topaketen aurkezpena
Telligorri plaza (Algorta) | Getxo
Informazioa: gazteokeraikitzen.topatu.eus

2016/11/26 - 21:00

Barne-Barnetik Fest

Txorimalo gaztetxea | Getxo

Dropl eta Worth It musika-taldeek joko dute. Sarrera: 3 euro.

2016/11/28 - 17:30

Petresku etzi ez etsi
umeentzako ikuskizuna

Armintzako kultur etxea | Lemoiz
Euskararen Astea. Sarrera, doakoa.

2016/11/30 - 11:00

Ander Deuna eguna

San Andres baseliza | Barrika eta Sopela
Bakoitzak bere baselizan ospatuko du eguna. Informazio gehiago: 7. eta 8. orrialdeak.

2016/11/30 - 18:00

Baso magikoa ipuin-saioa

Altzagako liburutegia | Erandio

Eneko Etxebarrietagaz. 1 eta 3 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/11/30 - 19:00

Euskara munduan, besteen

ahotan dokumentala

Kultur etxea | Urduliz

Euskaraz. Sarrera, doakoa.

2016/11/24 - 12:00

Ikasleen manifestazioa

Mikel Laboa plaza (campusa) | Leioa
EHUko Errektoretzarako hauteskunde-egunean egingo du nazio-mailako manifestazioa ikasle-mugimenduak, *Ikasle borrokaz gurea eraiki* goiburupean.

2016/11/24 - 17:30

Nola aukeratu jostailu egoki bat? **berbaldia**

Zabala ikastetxea (Algorta) | Getxo

Sendik antolatuta. Itsaso Pagoagagaz. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 644 277 155

2016/11/25 - 2016/11/27

Getxoko Eskulangintza Azoka

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Erakustaldiak eta umeentzako tailerrak egongo dira. Ordutegia: 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (zapatuan, 21:30ak arte). Sarrera, doan. Informazioa: getxo.eus

2016/11/25 - 17:30

Perkusio-tailerra

Kultur Leioako arkupea | Leioa

Barikuetan jai egitasmoa. Sökolé taldeagaz. Euskaraz. Doan.

2016/11/25 - 19:00

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia

Areetako musika-eskola | Getxo

Sarrera: 8 euro. Jaiak Algortako Azebarri kultur topalekuan jarraituko du, 22:00etan; sarrera, doan. Informazio gehiago: getxo.eus

2016/11/26 - 11:00

Vicrila beirategiko langileen manifestazioa

Plaza Eliptikoa | Bilbo

Vicrila ez itxi goiburugaz, Arriaga antzokiko plazaraino joango dira.



Zuloak filmeko irudi bat. © FERNANDO LEZAUN

Euskarazko zinemaldia

Zinema euskaldunaren erakustaldia egongo da Bilboko Campos Eliseos antzokian, hilaren 28tik aurrera.

Euskal Herriko Gidoilari Profesionalen Elkarteak eta SGAEk antolatuta, Zine Kontariren bigarren ekitaldia egingo dute Campos Eliseos antzokian, azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitartean. Eus-

kara hutsean idatzi eta ekoiztako zinemaren erakustaldia izango da. Helburua da autore-zinemako euskarazko film laburrak eta filmak sustatzea. Saio denak 19:00etan hasiko dira, azkena izan ezik: abenduaren 2ko ekitaldia

18:00etan hasiko da-eta. Sarrera librea eta doakoa izango da, leku-kopurua bete arte. Bost egunean, hainbat genero eta formatu ikusi ahal izango dira. Lehenengo egunean, astelehenean, *Gazta zati bat* (2001, 99 m.) Jon Maiak egindako dokumentala proiektatuko dute. Euskal gatazkari begiratzen dio, pertsonon ikuspegitik. Gainera, Gure Esku Dago mugimendu demokratikoa-

ren sorrera ezagutzeko ezinbesteko filma da. Martitzenean, *Zuloak* (2012, 99 m.) lana emango dute. Zuloak emakumezko boskote musikariren ibilbidea aztertzen du dokumentalak; Eider Rodríguez eta Fermin Muguruz dira horren zuzendariak. Arrate Rodríguez, Naiara Goikoetxea, Ainhoa Unzueta, Tania de Sousa eta Izaskun Muruagak osatutako taldeak ekarpen artistiko itzela egin du, eta musikaren munduan genero-hausnarketa eragin du. Eguaztenean, *Arriya* (2011, 101 m.) filma emango dute. Euskal Herriko mugako herri batean bizi diren hiru gazteren istorioa da, amaiera bakoitu baten gainekoa. Filma Alberto J. Gorritibereak idatzi eta koordinatu zuen, eta Iban Garate, Begoña Maestra eta Sara Casanovas izan ziren protagonistak.

Eguena, *Amama* (2015, 103 m.) filmaren txanda izango da. Familia baten belaunaldien arteko gatazkaren istorioa dakar, iragana eta etorkizunaren arteko liskarra. Asier Altunaren zuzendaritzapean, Nagore Aranburu, Kandido Uranga, Iraia Elias, Amparo Badiola, Klara Badiola eta Ander Lipus dira protagonistak.

Barikuan izango da azkenengo filma: *Zigortzaileak* (2015, 87 m.). Zenbait eskolakideren mehatxu eta irainei zelan erantzun aintzat hartzen duen istorioa da, neska-mutikoei eta helduei begirakoa. Horrenbestez, *bullyinga* da gai nagusia. Arantza Ibarrek egin ditu gidoia eta zuzendaritza lanak. ◀

Hitza emanda



Matxismoa

Emakumea eta neskatoa berdin, erasotzea beti behar da ekin. Aitzakiarik gabe gogotsu lan egin, matxismoa betiko desagertu dadin!



IMANOL URIA ALBIZURI
Bertsolari algortarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Euskara nazioarteko hizkuntza bizia dela gogoraraziko dute eguaztenean Urdulizen

Uribe Kostako Mankomunitateak antolatuta, datorren eguaztenean, hilak 30, *Euskara munduan, besteen ahotan* dokumentala proiektatuko dute Urdulizko kultur etxean, 19:00etan. Iñigo Asensio tolosarra da lan horren zuzendaria. Bertan, mundu zabaleko hiru kontinentetako hainbat atzeritarren lekukotasunak filmatu ditu, sortzez hain urrutikoak diren euskal hiztunak gure hizkuntza ikastera zerk bultzatu dituen jakiteko asmoz. 2014ko *Euskara Munduan* dokumentalaren bigarren eta azken atala da Asensioren lan hori. Lehenengoa, atzerrian bizi ziren euskal hiztunakaz egin zuten; bigarrena, jaio- tzez atzerritarrak direnak eta, aldi berean, euskaldun direnak elkarriketatu zituen egileak. Protagonista desberdinen bizipenak jaso ditu lanak, 62 minutuan. Protagonistetako bat, Jose Miguel Ramirez kolonbiar poliglota, lehenengo etortzekoa da Euskal Herrira, eta bide batez EGA titulua lortu gura du. ◀

Finalerako txartela lortu du Jone Uria Albizurik

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo finalaurrekoa irabazi zuen Jone Uria Albizuri bertsolari algortarrak pasa den zapatuan, Markina-Xemeinen. Horrenbestez, abenduaren 17an Bilbon jokatu den finalerako txartela lortu

du. Markina-Xemeingo «unibertsitateko» frontoia ia 700 bertsozalez bete zen. Hurrengo domekan, Basauriko Artunduaga kiroldegian jokatu da bigarren finalaurrekoa, 17:30ean. Bertan lehiatuko da Imanol Uria Albizuri, ALBEren beste ordezkaria. ◀



Sekula Betikotik

ITXASO PAYA RUIZ
Sortzailea

Zor dudan kafe bakoitzak...

Lehengoan Nerea Ibarzabali «Geratu beharra daukagu» izena duen lagun-zerrenda bat baduela irakurri nion. Nik ere izen hori duen zerrenda badaukat, berankor edo «moroso» usaina daukana; bertako lagun bakoitzari kafe bat zor diot eta. Euskal Herri osoko lagunak daude honetan, Laudiotik Azkainera. Akaso, A8a merkeagoa balitz edo asteburuak 3 egunekoak balira... Txarrena da badela zerrenda horretan urteak daramatzan lagunik. Egia esan, horiekin ere nahiko zorretan nago. Zor dudan kafe bakoitzak asteko 50 zentimoko interesa izango balu eskale bihurtu beharko nuke. Hori bai, eskalea banintz ez nioke inori ere kaferik zor izango. ◀

Txikientzako Bizkaidatz lehiaketa martxan dago

Bizkaiko Foru Aldundiak abian ipini du Bizkaidatz Txikia ume eta gazteentzako literatura-saria, hirugarren urtez. Literatur sormena sustatu eta bultzatu gura dute neska-mutilen artean, sariketa horren bitartez. Daborduko zabalik dago lanak aurkezteko epea; otsailaren 17ra arte. Adinaren arabera maila bi daude: umeena (Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak), eta gazteena (Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailetako ikasleak).

Parte-hartzaileek idazle bik sortutako kontakizunak garatu beharko dituzte, eta horiei amaiera eman beharko diete. Laida Martínez Navaroren *El caso de sopapos y su banda de matones* da gaztelaniazko abiapuntua; eta Xabier Olasoren *Paul eta sorginkeria-liburua*, euskarazkoek izango dute oinarria. Parte-hartzaileek aukera izango dute euren sormen-lanak idazteko eta kontakizun horietan azaltzen diren



Aurreko irabazleetako bat. © BFA

pertsonaiak eta egoerak garatzeko, 4 edo 5 orritan. Egileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete lanak; eta, epaimahaiak hala erabakiko balu, atal bietan irabazle izan daitezke.

Lanak eskura edo posta arruntez aurkeztuko dira Bizkaiko Foru Liburutegiko erregistroko eta herritarrei arreta eskaintzeko bulegoan, Bilbon, Diputazio kaleko 7. zenbakian. ◀

info+: www.bizkaia.eus/foruliburutegia

Nola aukeratu jostailu egoki bat berbaldia eskainiko du gaur Sendi egitasmoak, Algortan


Guraso, hezitzaile eta familiako helduentzako berbaldia antolatu du eguen honetan, azaroaren 24an, Sendik. Getxo udalerriko familietan euskara sustatzeko egitasmoaren ekitaldia 17:30ean hasiko da, Algortako Zabala ikastetxeko musika-gelan; sarrera, doakoa. Hala ere, parte hartu gura dutenek aurretik izena eman beharko dute; gaur ere eman daiteke. *Nola aukeratu jostailu egoki bat?* goiburuagaz, umearen garapen-etapak eta jolaserako beharrak azalduko ditu Itsaso Pagoagak, www.olgeta.eus webguneko arduradunak. Horrez gainera, jostailu motak, jostailu-iragarkien kudeaketa, sexismoa jostailuetan eta beste hainbat gai jorratuko ditu. Saioa euskaraz izango da eta entzuleen zailtasunak argitzeko tarte ere egongo da. Bestalde, azaroaren 30erako, eguaztarena, ume zein helduentzako jolas-tailerra antolatu du Sendik. ◀

info+: www.egizu.eus / 644 277 155

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia antolatuko dute zapatu honetan, Areetan eta Algortan

Zapatu honetan, azaroaren 26an, berriro ere Getxon egingo dute Nazioarteko Trikitixa Jaialdia. Ekimen horrek soinu diatonikoa jotzeko estilo ezberdinak erakutsi gura ditu, eta beste musika-tresna batzuek zelan uztartzen den ere bai. Aurton, Simone eta Nicolò Bottasso anaiek (Italia) eta Anne Niepold artistak (Alemania) joko dute. Horrez gainera, Asier Gozategik eta Julen Alonsok zein Kristina Solanok eta Amaia Orejak osatzen dituzten bikoteek ordezkatzeko dute Euskal Herria. Sarrerak salgai daude 8 euroan, Algortako kultur etxean zein Kutxa-banken salmenta-sarean, eta musika-eskolako txarteldegian, jaialdiaren egunean. Aipatutako saioak batera, aurten, beste kontzertu bat egongo da: Morena Tradipatxanga talde kataluniarak joko du, 22:00etan, Algortako Azebarri euskaltzaletan kultur topalekuan; sarrera doakoa izango da. ◀


info+: trikitixa.eus



80 Saltoki 80 Puestos
20 Espezialitate 20 especialidades
Haurrentzako tailerrak Talleres infantiles
Erakustaldiak Demostraciones

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
SARRERA DOHAINIK - ENTRADA GRATUITA

ORDUTEGIA HORARIO
11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00
(Larunbatean 21:30ak arte / Sábado hasta las 21:30)



«Herri-elkargo berriak ahalak ukanen ditu Hegoaldearekin zubiak eraikitzeko»

Battitta Boloquy baxenabartarrak berba egin zuen Ipar Euskal Herriko udalek herri-elkargo bakarra sortzeko hartutako erabakiaz, azaroaren 16an, Getxoko Udalaren Euskara Zerbitzuak antolatutako Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan. Iparraldeko Hautetsien Kontseiluko zuzendaria da Boloquy. *Herria eta hizkuntza* izenburuko mahai-inguruan parte hartu zuten berak eta Hélène Charrittonek, Baionako Etxepare Lizeoko zuzendariak.



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Iparraldeko Herri Elkargoa urtarrilaren 1ean martxan ipiniko da. Lurralde-banaketari dagokionez, zelan aldatuko da egoera?

Orain badira Iparraldean hamar herri-elkargo, adibidez: Baiona, Angelu, Biarritz, Bokale eta Bidarte kudeatzen ditu elkargo batek; eta horrela badira beretze bederatzi. Hamarretatik batera pasatuko gara; hamar herri-elkargo horiek desagertuko dira eta, horien ordezt, bat egingen da. Horien eskumenak herri-elkargo bakar horrek kudeatuko ditu.

Herri-elkargo bakarra izanda, baliabide gehiago edukiko dituzue, ezta?

Horretan da ezberdintasuna; erran nahi dut, alde batetik, aurrekontua, medioak... azkarrago izanen direla. Herri-elkarte horrek ahal gehiago ere ukanen du herri horiek ustiatzeko. Herri-elkargoko ogasunak pisu gehiago ukanen du, alde batetik, Akitania herri handiarekin; eta bestetik, kanpora begira, Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoarekin, Nafarroarekin... negoziaketak, elkarren arteko eztabaidak edo proiektu komunak egiteko.

Zein ezaugarri edukiko ditu herri-elkargo berriak?

Herri-elkargo horrek eskumen asko izango ditu: enpresak non kokatu eta horien garapena nola landu; etxebizitza; ingurumena, hondakinen tratamendua eta uraren kalitatea; hizkuntza politika; kultura; hurbiltasuneko zerbitzuak... horiek denak ustiatuko ditu herrientzat.

Gaur egungo egoerara heltzeko zein pauso eman behar izan dituzue?

Iparraldean bada aspaldidanik instituzio baten arazoa mahaiaren gainean pausatua; ez zen gehiengo bat atera duela 25 urte instituzio bat sortzeko. Orduan, bi elkarte sortu ziren: Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua.

“ **Herrien %71 eta biztanleen %66 atera da herri-elkargoaren alde. Gehiengo handia izan da proiektu berriaren alde** ”

Zelako lana egin dute elkarte bi horiek?

Horiek erabili dute 25 urtez zenbait adar garatzeko. Hizkuntzari buruz, adibidez, lan asko egin izan da; baita lurrari eta beste gai batzuei buruz ere. Denbora luze horretan, gizarte zibilak eta hautetsiek kontuan hartu dute egiten ahal zen lana tresna horiekin egin zela, baina, orain beste instituzio bati buruz behar zela joan. Koska hori 2009an hasi zen; Frantzia mailan izan zen erreforma bat eta, erreforma horretan, orain arte Euskal Herriak zuen ezagutza desagertzeko arriskuan izan zen. Orduan, Hautetsien Kontseiluko ordezkariak Garapen Kontseiluko sostengua-

rekin harremanetan sartu ziren nazional mailako ordezkariekin, gobernuekin... eta abiatzeko gogoe-ta egin zuten, ikusteko nola Iparraldean zerbait sortzen ahal zen. Lehen proiektu bat asmatua izan zen: kolektibitate berezi bat sortzea Iparraldearendako... Hori proposatua izan zen Gobernuari, 2012an.

Hala ere, Frantziako Gobernuak ez zuen proposamena aintzat hartu.

Bai. Horri buruz, Gobernuak ezetza eman zuen; baldintzak ez ziren orduan, eta lege bat behar zen nazional mailan horrelako proiektu bat sortzeko. Ez zen egin. Horren ordezt, Estatuak proposatu zuen 2014an, Frantzian egiten zen erreforma orokor batean, herri-elkargoak eraberrituak izango direla Frantzia guztian. Orduan, Estatuak proposatu zuen Iparraldeko hamar herri-elkargo horietatik bat egitea. Hor, bazela gako bat instituzio berezi bat sortzeko, Hautetsien Kontseilua hamar herri-elkargoetako ordezkariekin lanean hasi zen horri begira; ikertu zuen zein ondorio ematen ahal zen.

Eta bozketa egin zenuten.

Hor, adostasun bat atera da, kontrakoak ere izan dira... Baina, joan den udaberrian prefetak proposatu zuen herriak bozkatzeko, herrien iritzia jakiteko, baita biztanleena ere. Herrien %71 eta biztanleen %66 atera da herri-elkargoaren alde. Gehiengo handia izan da proiektu berriaren alde eta, hori ikusiz, prefetak erabakia hartu du herri-elkargo bat egiteko,



2017ko urtariletik goitik. Hara zer izan den gure prozesua proiektuari buruz. Bidean oztopoak ere izan dira; bada, nola erran, kontra direnak proiektu horri begira, eta hainbat arazo ematen dituzte mahaiaren gainean.

Euren ustez zeintzuk lirateke arazo horiek?

Herri-elkargo berri horrek 232 hautetsi bilduko ditu; legeak ematen du hori, zeren eta herri bakoitzak gutxiarik ordezkaritza bat behar du, eta, gero, herri handiek gehiago badute. Oraingo moduan, baserriko herriek gehiago pisu ukanen dute herri-elkargo horretan; orduan, zenbait hautetsi beldur dira desoreka horrek problema batzuk sor ditzan. Hori izan da kontrakoen iritzia.

Kontrakoen iritzia hori da; baina, aldekoek zer iritzi diote gai horri?

Aldekoek erran dute, hala izanik ere, ordenantza berezi bat asmatzen aldera eta sartzaren alde, horrek ongi funtzionatzeko. Bi puntu baikor ikusten dituzte alde direnek: alde batetik, herri-elkargo handi bat ukaitea, Akitania Berrian, 300.000 biztanle pisatzen duen elkargo batek, ahal gehiago ukanen duela negoziatzeko, bai eskualdearekin, bai mugaz bestaldeko lurraldeekin. Bestetik, anbizio handiko politika publikoak ezartzen ahal direla ikusten dute. Azkenik, horrelako instituzio batek Euskal Herriaren instituzio problema konpontzen du; arazo horri erantzun bat ematea bada.

Hala ere, urtarileria bitartean lan handia egiteko dago oraindino, ezta?

Bai. Momentuan bada lan-talde bat; astearte arratsaldetan biltzen da. Erabakitzaile-talde hori ari da ikertzen herri-elkargoaren eskumenak zertan izango diren, 2017ko aurrekontuan nola prestatu, langileria zertan izango den herri-elkargo horretan... Batz

“ Herri-elkargoak 232 hautetsi ukanen ditu; urtarilaren 1ean bilduko dira eta lehendakaria bozkatuko dute ”

beste, 1.250 langile ukanen ditu herri-elkargoak; horiek kudeatu eta gero, formazio-sistemak zelan kudeatu... horiek denak ari dira ikertzen, urtarilaren 1ean prest izateko.

Herri-elkargo hori urtarilean bilduko da lehen aldiz; lehendakaria, lehendakariordeak... bozkatuak izanen dira, eta hor denak hasiko dira...

Zer uste duzu Hego eta Ipar Euskal Herria hurbil edo urrun daudela?

Hurbil, bihotzean; eta urrun, berdin egiteko politika publikoetan. Desoreka eta desberdintasun handiak



Ipar Euskal Herri Elkargoa

Euskal Herri Elkargoa (frantsesez, *Communauté Pays Basque*) Ipar Euskal Herriaren egituraketa administratibo bateratua lortzeko sortu gura den erakundea da. Hori 2017ko urtarilean sortzea iragarri dute; hori jazo baino lehenago, baldintza bi bete behar izan dituzte: herrien eta biztanleen erdiek eman behar zioten oniritzia herri-elkargoari; herrien %71 eta biztanleen %66 atera zen erakundea berriaren alde.

Hala, gaur egun Ipar Euskal Herrian indarrean dauden hamar elkargoak bakarrean batuko dira, honako hiru instantziek gobernatuta: 232 kideko elkargo-kontseiluak, 69 kideko batzorde iraunkorrak eta 20 kideko bulegoak. Ipar Euskal Herriko 158 herriak eta 300.000 biztanleak egongo dira herri-elkargoaren barruan.

Instituzio berriak kudeatuko ditu ondoko eskumen hauek: garapen ekonomikoa, eremu komunitarioaren kudeaketa, etxebizitzaren oreka soziala, hirigintza eta hondakinen kudeaketa.

info+: www.societecivile-paysbasque.com

badira; instituzioen eskumenak ez dira berak. Baina, nik pentsatzen dut Iparraldean sortuko den tresna horrek eskumenak ematen dituela Iparraldeari Hegoaldeko instituzioekin orain arte baino lan gehiago egin ahal izateko. Eta instituzio berriak mugaren alde bietako euskal herritarren arteko zubiak eraikitzen lagunduko du; Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko zubiak, alegia. Eta herri-elkargoak ahalak eta eskumenak ukanen ditu zubi-lan hori egiteko.

Baliagarriak ikusten dituzu Iparra Galdu Gabe bezalako jardunaldiak, mugako alde bietako bizilagunen arteko harremanak sendotzeko, batean eta bestean egiten diren ekimenak ezagutzeko?

Iparraldea Galdu Gabe jardunaldietan, azaroaren 20an izandako mahai-ingurua biziki interesgarria da guretzat; baita bertan izan zirenentzat ere, Iparraldean nola lanean ari garen ikus dezaten. Zubi horiek arrunt beharrezkoak dira gizarte zibilaren artean, hautetsien artean... Guk duela 20 edo 25 urte hasi genuelarik gure lana Iparraldearen etorkizunari buruz, argi zen mugaz bi aldeetako harremanak eta kooperazioa behar zirela elkartu; Iparraldearen etorkizuna, ekonomia eta beste sail asko, kooperazio horren inguruan sortuko zela argi zen. Guk falta genuen tresna zen Iparraldean instituziorik ez izatea; Iparraldeak, bere osotasunean, nekeziak baditu oraindino, Hegoaldearekin loturak egiteko. Espero dugu, instituzio hori sortuz, gai askotan zubi horiek sortuko direla eta obratuko direla. ◀



Aurten Juliette Brice surfleri frantsesa nagusitu da Arriateran. © LAURENT MASUREL - WSL

Surfa eskualdera dator

Galea eta Sopela munduko surfaren egitarauan egongo dira beste urte batez. Daborduko, Munduko Surf Ligak iragarri du proba biak mantenduko dituela 2017an.

Galeako Olatu Handia edo Punta Galea Challenge itxaronaldian dago asteotan, datorren otsailaren 28ra arte, 6-7 metroko olatuak noiz helduko diren itxoiten. Proba 2012an sartu zen Munduko Olatu Handien Zirkuituan, sailkapen-ekimen moduan, eta gerora saltoa eman zuen zirkuituaren kategoria nagusira. Iaz, oster, ola-

tu egokien ezean, txapelketa bertan behera lotu zen. Hori dela-eta, aurtengo zirkuituaren barruan mantendu du Munduko Surf Ligak (WSL), baina QS sailkatze-serie azpikategoria berriaren barruan. Nazioarteko gonbidatuei dagokionez, Greg Long munduko txapeldunari eta Grant Twiggy Baker hegofrikarrari gehitu zaizkie Billy Kemper hawaiarra, Pe`ahi-ko Olatu Handiko

Txapelketan nagusitu berri da. Datorren urtean ere Olatu Handien Zirkuituan sailkatzeko proba izango da Galeakoa, aurtengo gertatuko dena gertatuko dela. Getxoko ekimena 2017ko urriaren 15a eta 2018ko otsailaren 28a bitartean egin beharko dute.

Sopela

Sopelari dagokionez, datorren urtean Arriaterako hondartzan izango da, berriro ere, Europa mailako gazteen sailkatze-seriea, emakumezkoen eta gizonen artean. Junior Pro Sopelari 2017rako WSLk finkatu dizkion datak

uztailaren 20tik 23rakoak dira. Aurtengo, uztailaren 16an eta 17an egin zen proba. Bertan, irabazleak izan ziren Juliette Brice surfleri frantsesa eta Titouan Boyer martinikarra. Ariane Ochoa eta Nadia Erostarbe euskal herritarrek ere norgehiagoka ona jokatu zuten, eta gaur egun Europako Gazte Sailkatze-serieko bigarren eta hirugarren dira, hurrenez hurren. Sara Urresti eta Leire Fuente sopeloztarrak, ordea, 13. eta 14. postuetan daude. Gizonezkoetan, Lander Davila eta Ruben Vitoria dira euskal herritar bakarrak sailkapen horretan, 6. eta 18. postuetan. ◀

Hondarmendi taldeak denboraldia abiatu du

Gorlizko txirrindularitzazaleak pozik egon litezke daborduko: pasa den barikuan, Hondarmendi txirrindularitza-klubak 2016-17 denboraldiaren aurretiko sasoiari hasiera eman zion. Iberrebarri plazaren inguruan, 2010ean baino lehen jaio-tako neska-mutilek entrenamenduak berrartu edo hasi zituzten. Hondarmendiren prestatzaileek gupida izan zuten gaztetxoekiko eta «jolasak, jolasak eta jolas gehiago» programatu zituzten. Izan ere, klubaren iritziz «kirola ondo pasatzeko aitzaki bat besterik ez da». Hala, gorputz-koordinazioa, psikomotrizitatea eta trebetasun fisi-



Pasa den barikuko saioa.

koak landu zituzten bitartean, irribarrets ibili ziren bizikletazale gazteak. Gorlizko tropelera batu gura dutenek oraindino egin dezakete, posta elektronikora mezu bat bidaliz. ◀

info+: hondarmendi.txirrindularitza@gmail.com

Euskadik fitxatu du López Cozar txirrindularia

Baqué-Campos taldea desegin ostean, Juan Antonio López Cozar *Chupete* txirrindularia ez da Baqué-Saroni talde berrian sartu. Horren ordez, Euskadi Fundazioagaz sinatu du datorren denboraldian elite-mailan estreinatzeko. Portugaleko profesional talde batek sinatzeko aukera izan ei du, baina gurago izan du Euskadi Fundazio taldera joan. Baliteke hurrengo urtean horiek profesional taldea osatzea. Txirrindulariak maila ona eta izaera borrokalaria erakutsi du azkenengo denboraldietan: hirugarren egin zuen, pasa den uztailan, Portugalgo Volta do Futuron, besteak beste. ◀

Ilargi García nagusi Euskadiko Nazioartekoan

Ilari García taekwondo-borrokalaria getxoztarrak urrezko domina lortu zuen Euskadiko I. Nazioarteko Sarietan, 53 kilo azpiko mailan, pasa den azaroaren 5ean. Lehiaketa Bilboko Miribillako Bizkaia pilotalekuan jokatu zen, 400 bat kirolariren artean. Lehenengo borrokaldian, Ilargi García mendean hartu zuen Maria Aviñoa katalana, 11.0ko emaitza lortuta. Finalerdietan, Andrea García madrildarra izan zuen aurkari eta lehia horretan ere nagusitu zen, 2.1eko emaitza estuari esker. Azkenik, merezimendu osoz irabazi zion Noemi Alba katalanari torneoaren finalean, 11.4 eginda. ◀

Punta Galea eta Duranguesa, bat



Loiumat - Andamios Inox taldeko gazteak, pasa den apirilean Zornotzan. © AMOREBIETA TX. E.

Punta Galea eta Duranguesa txirrindularitza-elkartek bat egin dute, 23 urtez azpiko eta elite mailetako talde berri bat sortzea bultzatzeko: Eiser-Hirumet. Hala, talde bien jarraipena izango da Eiser-Hirumet. Alde batetik, orain dela denboraldi bi sortutako Eiser-Inforlur tropelaren lanagaz segituko du Durangoko elkarteak; eta, beste aldetik, Punta Galeak laguntzen zuen desagertutako Seguros Bilbao Team taldea ordezkatu gura du proiektu berriak.

Eiser-Hirumeten helburu nagusia da klub bien harrobiei eta, bereziki, gazte-mailakoen talde biei irteera ematea: Beste Alde Cafe La Tostadora-ri eta Loiumat - Andamios Inox-i, ale-

gia. Punta Galeak jakinarazi duenez, taldea laster aurkeztuko dute. Denera sei babesle izango ditu talde berriak, tartean Getxo Kirolak udal-erakundea.

Taldea 18 txirrindulariz osatuta dago, Unai Uribarri zuzendariaren agindupean. Proiektuaren bizkarrezurra 13 txirrindularik osatzen dute: Eiser-Inforlur taldetik segitzen dutenek, eta Duranguesa eta Punta Gale taldeetako harrobietakoek. Denera, hamalau bizkaitar, britaniar bi, kolonbiar bat eta hegoafrikar bat izango ditu Unai Uribarrik bere aginduetara. Modu berean, Kimetz Lapazaran eta Roberto Arteaga izango dira Uribarriren laguntzaileak, eta prestatzaile fisikoa Pablo Mas izango da. ◀

Berangoko Miliak aurton ere saria dauka

Az jazo legez, aurton ere Berangoko Milia Estatu espainoleko miliarik onena izendatu du Espainiako Atletismo Federazioak. Ohore hori emateko, Federazioak kontuan hartzen ditu azken hiru urteetako antolakuntza-ahalmena, antzinakotasuna, par-

te-hartzaileen kopurua, lehiaketaren kirol-maila eta lehiatu diren atleten rankinga. Alderdi denak batuta, Berangoko probak puntuaziorik onena batu izan du azken hiru urteotan eta, jakina, hiru urtetakoen batezbestekorik onena ere bai; 879 puntugaz. ◀



Berangoko Atletismo Taldeko presidentea, iazko saria batzen. © BIZKAIKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Getarian ere nagusi, Garazi Sanchez surflaria

Garazi Sanchez Ortun surflari getxoztarrak aurtengo Euskal Surf Zirkuituko bere bigarren garaipena lortu zuen, pasa den domekan. Abuztuan Sopelan egin zuen legez, domeka honetan Getariako Orrua eta Izustarriko olatuetan onena izan zen Sanchez. Euskal Herriko Surf Federazioak azaldu duenez, «Orruako olatua baldintza perfektuetan apurtu zen», Garazi Sanchezen eta Hodei Collazoren onerako, gizonezko eta emakumezko mailetako irabazleak. Jatyr Berasaluce eta Sara Urresti sopeloztarrak, oster, hirugarren eta laugarren geratu ziren, hurrenez hurren. ◀

Getxoztar bi, Munduko Raid Txapelketan


Urtzi Iglesias eta Jon Ander Arambalza getxoztarrak hirugarren sailkatu ziren Munduko Raid Txapelketan; Australian egin zen, pasa den azaroaren 10etik 14ra. Eurakaz batera Bárbara Bomfim eta Marco Aselem kirolari brasildarrak lehiatu ziren Columbia Vidaraid taldean. Laukotearen denbora 99 ordu eta lau minutukoa izan zen, Seagate talde txapeldunak egin zuena baino lau minutu gehiago. Urtzi Iglesiasen eta Jon Ander Arambalzaren Columbia Vidarai taldearen aurretik Adventure Medical Kits helmugaratu zen, minutu bat eta 51 segundoko abantailagaz. ◀

Bilbao Atletismo Santutxun hasi da Legina

Datorren 2016-2017ko denboraldian, Bilbao Atletismo Santutxu taldean izango da berriro ere Maite Arraiza Aramendia atleta getxoztarra, klubak bere aurkezpenean baieztatu duenez. «Begoñako errepublikakoek» 24 emakumedun talde sendoa aurkeztu dute, 20 atleta seniorregaz, Arraiza tartean, eta lau gaztegaz; haietako bat Berango Atletismo Taldean hezitako Nahikari Legina Basabe da. 2016-2017ko denboraldirako bost fitxaketa berri egin ditu taldeak: aipatutako Nahikari Legina Basabe, Alicia Portilla, Andrea de la Torre eta Irene Loizate gazteak eta Virginia Perez mendiko espezialista. ◀

Salvador eta Conde, korrika Pozalaguan

Jon Salvador atleta erandioztarrak kobazulo baten barrutik beteko du bere hurrengo maratokia. Ekimena, ohi den legez, Javi Conde atleta paralinpiko basauriarrazagaz batera egingo du. Maratoizaleek erronkarako aukeratu duten lekua Karrantzako Pozalagua haitzuloko Versailles sala da; abenduaren 23an ahaleginduko dira 42,195 kilometroak betetzen. Erronka egingarria izateko, Pozalaguako lurra moketa batez estaliko dute. Hala ere, Javi Conderen iritziz «gogorra izango delakoan nago». Gainera, bere ustez, «bost ordu baino gehiago emango ditugu» maratokia amaitzeko. ◀



Pla eta Jaurena, Mundialetik hur



Bárbara Plak eskarmentu handia dauka selekzioagaz. © FER

Bárbara Pla eta Saioa Jaurena Getxo Rugby Taldeko jokalariek Irlandan egingo den Munduko Koparako txartelak eskuragai dituzte. Izan ere, parte hartzen duten Espainiako Selekzioari partida bat besterik ez zaio falta sailkatuko den ala ez egiaztatzeko. Zapatuan, azaroaren 26an, izango da norgehiagoka, Madrilgo Complutense unibertsitateko estadioan, 13:00etan. José Antonio Barriok zuzendutako taldeak Eskozia izango du arerio, pasa den barikuan legez. Joaneke partida Eskoziako Glasgow hirian jokatu zuten. Etxean jarduteak ez zien lagundu higlanderrei, 5-10 galdu baitzuten «lehoi emeen» aurka.

Beraz, abantaila horregaz zelairatuko da Pla eta Jaurenaren taldea. Gainera, Sei Nazioen Torneoeko selekzio hori mendean har dezaketela erakutsi dute daborduko. Glasgoven, Plak zein Jaurenak jokatu zuten. Selekzioan parte hartzen ohi duten Carmén Pérez, Enara Cacho eta Ángela Soria Getxo

Rugby Taldeko beste jokalariek deialitik kanpo geratu ziren. Kanporaketa irabaztekoan, Espainiako selekzioa 2017ko Munduko Txapelketarako hamargarren sailkatua izango litzateke. Ingalaterra (egungo txapelduna), Kanada, Frantzia, Irlanda, Zeelanda Berria, AEB eta Australia zuzenean sailkatu ziren 2014ko Frantziako Munduko Kopan zazpi selekzionik onenak izan zirelako. Galesek eta Italiak, oster, beren lekuak gordeta dituzte, 2015 eta 2016 urteetako Sei Nazioen Torneoetan lortutako emaitzen ondorioz. Espainiako selekzioak Munduko Errugbi Koparako sailkatzeko aukera izan du pasa den urrian Europako Txapelketa irabazi zuelako.

Hala, zapatuan irabaziz gero, Getxo Rugby taldeko jokalariek aukera izango lukete mundu-mailako txapelketan lehiatzeko; 2017ko abuztuaren 9tik 26ra izango da Munduko Kopa. B taldean egongo lirateke getxoztarrak, Ingalaterra, AEB eta Italiagaz. ◀

Ione eta Nerea Andersen, nagusi Bizkaiko judoan

Ione eta Nerea Andersen 12 urteko kirolari sopoloztarrek irabazi zuten 15 urtez azpiko Bizkaiko judo-rankinga, *shiai* edo borroka modalitatean, pasa den domekan, Itzurbaltzeta/Romoko Gobela kiroldegian. Bizkaiko Judo eta horri lotutako Federazioak antolatutako rankinga, Bizkaiko txapelketaren parekidea da. Beraz, esan daiteke, Ione Andersen Bizkaiko txapelduna dela, eta Nerea Andersen txapeldunordea. Ahizpa biak Sopelako Jundo judo errege-klubeko partaideak dira. Hain zuzen ere, elkarte horretatik ziurtatu dute Andersen ahizpak Euskadiko Judo Txapelketan ere lehiatuko direla. ◀

Nerea Bengoak Athleticegaz jokatuko du

Nerea Bengoa Gaztelu orain arte Leioako Emakumeak taldeko jokalaria lanean hasi da Athleticen bigarren taldeagaz. Leioa Kirol Elkartek «etorkizun oparoko» atzelari gisa deskribatu du 15 urteko futbolaria. Bengoa aurten estreinatu da klub leioaztarren emakumezkoen talde nagusian, Euskal Ligan; 6 urte betetzear zituenetik jokatu du Leioako Emakumeak taldeko koloreakaz, hainbat kategoriatan: benjamin, kimu, kadete eta lehenengo taldean izan da, gazte maila ez zuelako egin. Hemendik aurrera, Espainiako Bigarren Mailan jokatuko du leioaztarrak. ◀

Leioa Saskibaloit Taldea aurkeztuko dute barikuan

Klubak azken urteotan hartutako ohiturari jarraituz, datorren barikuan, hilak 25, Leioa Saskibaloit Taldeko sendi osoak egingo du 2016-17 denboraldiko aurkezpena. Hitzordua Sakoneta kiroldegian ipini dute, 20:00etan. Bertan, Leioa SBTko talde denez gainera, hitzartutako eskola-taldeak ere egongo dira: Txomin Aresti, Irlandesas, Betiko eta San Bartolome. Bestalde, egunean, beste hitzordu garrantzitsu bat izango du Leioa Saskibaloit Taldeak: elkartearen Batzar Nagusiaren ohiko bilkura. Kasu horretan, lehenengo deialdia arrastiko 07:45ean ipini dute, Sakonetan. ◀

Fadura Tenis Klubak 2. Mailan segituko du

Pasa den domekan, patuak ez zion lagundu Fadura Tenis Klubari, nahiz-eta etxean jokatu zuen. Egun horretan, Cercle Sabadellès 1856 klub katalanaren aurka jokatu zuen, Fadura instalazioetan. Talde katalanak irabazi zuen, 4-1, eta berau izango da datorren denboraldian Estatu espainiarreko lehenengo mailan lehiatuko dena. Fadurak, Bigarren Mailako txapeldunordeak, bere horretan jarraituko du. Algortako klubak «tristezia» agertu zuen igoera ez lortzeagatik, baina taldeak, hamar onenen artean geratuta, balentria «handia eta ahaztezi-na» egin duela azpimarratu zuen. ◀

aldai
Tapizteria
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GAVRKO
1967

GIZONENTZAKO
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa,
gutxi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aldizkariak · Lixarrieriak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

Taberna Berri

Sarrikobaso 4. ALGORTA · 94 430 64 93

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus • 944 911 337

5€

**OLI**
ALGORTA
Areneazpikoen partez

Badirudi zoriontasuna aurkitu duzula; ez da opari makala zure urtebetetze egunerako. Espero dugu gauzek horrela jarraitzea. Zorionak!

**IZEKO JAYO**
ALGORTA
Oierren partez

Amatxoren sabelean egon arren, mila muxu opa dizkizut zure urtebetetze egunean. Zuriñegatik dakit ondo zainduko nauzula jaiotzen naizenean.

**ESTELA**
ALGORTA
Senideen partez

Urteak aurrera egin ahala, ezin ederrago egon! Urtebetetze-egun ederra eduki dezazun, inguruan izango gaituzu. Zorionak eta muxu handiak!

**EIDERTXU**
ALGORTA
Familiaren partez

Zorionak! Dendako atzera-aurreren artean, tartetxo bat aterako duzu belarritik tira diezazugun, ezta? Aitari eska diezaiokezu eguna libre emateko!

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?

SARIA

Francoren bilobari gutuna antzezlanaz gozatzeko 4 sarrera bikoitz dauzkagu!

Aurrekoan galdu bazenuen, oraingoa, arin ibili!

Abenduak 9, barikua, 20:00;
Kurtzio kultur etxea (Sopela)

Sopelako Udalaren ekimenez, Artedrama konpainiak opetsiko duen emanaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 5a baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Horoskopoa

**Ura**
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Sentimendu kontrajarrak izango dituzu pertsona maitatuarekiko. Baliteke berak gauza bera sentitzea eta zu ohartu ez. Berba egitea komeni zaizue.

**Otsoa**
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Oporrak behar dituzu lagun hori; gizakia zara eta ez makina bat. Bestalde, entzuteak ez dio inori kalterik egiten; horrenbestez, kasu egin hurkoei.

**Adarra**
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Diruagaz zerikusia duenak atzerapenak izango ditu, batez ere zerbait zor badizute. Lasai egon, kontu garrantzitsuagoak badaude-eta.

**Aitzurra**
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Erabateko lasaitasuna izango duzu aste honetan. Fisikoki sasoian eta ederto sentituko zara, behin-goagatik. Halere, erne ibili eta zaindu zeure burua.

**Hostoa**
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ezagutzen ez duzun pertsona bat hurreratuko da zure lan esparrura. Ahal duzun neurrian, lagundu beharko zenioke. Etorkizunean ez zara damutuko.

**Eguzkia**
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Artega, urduri eta narritagarri sentituko zara eta lo egitea kostatuko zaizu. Gainera, umore txarreko bolada izango duzu. Hartu zuretzako denbora.

**Garia**
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Orain zeure burua jagoten ez baduzu kolesterola-ren kontua behin baino gehiagotan entzun beharko duzu etorkizunean.

**Lastoa**
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Nagiak atera eta naturan murgil zaitez; ematen duena baino errazagoa da. On egingo dizu eta ez zara damutuko.

**Iratzea**
(Abuztuak 18-Irailak 16)


Bizkarreko arazoren bat sentituko duzu egunotan. Aurreztutako diruak erraz egingo dizu ihes; horrenbestez, modu egokian gastatu daukazun apurra.

**Meta**
(Irailak 17-Urriak 16)

Asteko lehenengo egunetan ez zara zeure sasoi onenean egongo. Atsedena hartzea ez da denbora galtzea; zeure gorputzak eskertuko du.

**Hazia**
(Urriak 17-Azaroak 15)

Lan-kontuetan zure sortzeko gaitasuna askatuko duzu, baina baliteke zeure ingurukoek ez ulertzea. Izan ezazu konfiantza zeure buruarengan.

**Negua**
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Apurka-apurka baikorraro eta indartsuago sentituko zara. Horren arrazoiak zu zeu izango zara, etorkizunari beste modu batean begiratuko diozulako.

Gabonetako zenbaki berezia osatzen gabiltza

hiruka

Uribe Kostako astekaria

Zure negozioa iragartzeko aukera ezin hobea!
Gugaz harremanetan ipintzeko: 944 911 337 edo publi@hiruka.eus



Geure berbak geureak direzelako



Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara

Koldo Zuazo eta Urtzi Goiti

Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratu du, EHUREN IKERTUZ ikerketa-lanen sailean. Horretarako laguntza eman dute Berango, Erandio, Getxo eta Leioako udalek zein Uribe Kostako Mankomunitate Zerbitzuak, besteak beste; Bizkaiko Foru Aldundia eta Alkarbide izan ditu babesle legez. 189 orrialde dauzka eta 15 euroan salmentan dago.

Uribe Kosta, Txorierri eta Mundialdeko euskara liburua aurkeztu zuten Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik, Algortako Azebarri topalekuan, martitzenean. Gure berbetari dagozkion kontu batzuk jaso ditugu hemen.

TESTUA: IRANTZU SAGARMINAGA ETXEBARRIA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Irailean aurkeztu zuten Bilbon *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara* ikerlana Koldo Zuazo Zelaieta hizkuntzalariak eta Urtzi Goiti Ugarte biologo leioaztarrek. Egileakaz eurakaz horren inguruan berba egiteko egundoko aukera izan zuten uribekostarrek pasa den hilaren 22an, Getxon. HIRUKAk orriotara ekarri gura izan ditu liburuko aipamen batzuk, labur-laburrean, eta Azebarriko berbaldiaren bideoa laster ikusi ahal izango da agerkarian, hiruka.eus-en.

Gaur egun Sondikan (Txorierri) bizi den Koldo Zuazo Zelaieta (Eibar, Gipuzkoa, 1956) EHUko irakaslea da Dialektologia eta Euskararen Soziolinguistika arloetan, eta euskaltzain urgazlea. Esanguratsua da euskalkiak ikertzen urtetan egin duen lana; arlo horretan, aditu ezagunenen artekoa dela esan daiteke. Bere ikasgai baterako lan bat egin behar zuela-eta, bere ikasle batek Urtzi Goiti Ugarterengana jo zuen, darabilen euskara jasotzeko eta aztertzeko asmoz. 39 urteko leioaztarra biologoa da, eta irakaslea EHUko Farmazia Fakultatean. Gaztea izanda Goitik bertoko berbeta erabiltzeak arreta eman zion Zuazori; zoritxarrez, gaur egun bertako euskara «adin batetik gorakoek» bakarrik darabiltelako, eta ezagutu ere... Biologoa bada ere, «hizkuntza kontuek betidanik» erakarri izan dute, Goitik kontatu duenez; «12 urte nituenean hasi nintzen Leioako bertoko berbak batzen, etxean ibiltzen genituenak; ikusten nuelako galtzen zebiltzala... Koadernotxo bat neukan, oraindino mantendu egiten dut, han ipintzen du: *Geure berbak*». Zerbait egiteko gogotsu, bata bestearengana hurreratu, eta

horrela sortu zen elkarlana: *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara* liburua; ordutik eta urte bira, oraintsu, plazaratu duten lana.

Zuazok dioenez, horren helburua da «hizkuntza zuzenago eta egokiago erabiltzea». Bere ustez, «hizkuntza bat leku bakoitzeko premietara egokitzen aha-

“ Hiztunendako hizkuntza arrotza eta urruna bada, ez dute onartuko eta ez dute erabiliko, eta hori ari da gertatzen alderdi askotan ”

legindu behar dugu. Euskara batua euskaldun guztiondako egin zen: Bartzelonako Euskal Etxerako; Madrilgo Ateneorako; Moskuko, Tokioko edo Poznango unibertsitateetan erakusteko..., baina Uribe Kostan bertako bizilagunendako egokitu behar dugu, hiztunek hizkuntzarekin lotura izan dezaten, harekin identifikatu daitezen eta hura erabili dezaten. Hiztunendako hizkuntza arrotza eta urruna bada, ez dute onartuko eta ez dute erabiliko, eta horixe dabil gertatzen gaur egun alderdi askotan. Euskara erabiltzen ez bada, ez da bakarrik Madrilatik debekuak datozelako; geuk ere ez dugu gauza askotan asmatzen eta egoki jokatzen». Goitik «euskara nahastua» erabili beharko genukeela uste du, «geurea galduko ez bada; erre-gistro ezberdinak izan beharko genituzke, eta bakoitza ibili momentuaren, egoeraren, eta aurrean dugun



pertsonaren arabera; batua kontu formalean, ofizialean; euskalkia, lagun artean, kalean...».

Liburuari dagokionez, nabarmendu dute «Bizkaian azterketa dialektal gutxi egin direla. Hori dela-eta, erakutsiko ditugun ondorioak behin-behinekoak dira, inguruko berbetak hobeto ezagutzen direnean, aldatu, egokitu eta osatu beharrekoak». Lana egiteko oinarri hartu dituzten ikerlan batzuk aipatu dituzte aurkezpenean, gure eskualdeari lotutakoak lanak dira Iñaki Gaminde, Iñaki Gilisasti eta Xabier Bilbao hizkuntzalariek egindakoak. Ezin aipatu barik utzi Rafael Mikoletak 1653an euskara ikasteko egin zuen liburuaren zein 1596an Iruñean argitaratutako esaera zaharren bilduma: *Refranes y sentencias*. EHUK argitaratu duen Zuazo eta Goitiren liburuak hiru atal nagusi ditu: lehenengoa, akademikoa: gramatika egitura erakusten da; bigarrena, hiztegia, «gurea zabaltzeko» asmoz jasotako berbakaz eta aldaerakaz; eta, hirugarrena, datuen interpretazioari dagokiona: hizkera horien «egitura dialektala» azaltzen da, berbaera bakoitzari dagokion berezitasunak eta ezaugarriak jasoz. Hiztegiaren 572 sarrera daude, eta 63 azpisarrera. Gainera, 41 mapa agertzen dira, «liburuaren osagarri eta aberasgarri». Ondorioztatu dutenez, «euskalkiaren (eta euskararen) egoera ez da ona aztergai izan duten alderdian. Azken batean, adin batetik gorakoek bakarrik egiten dute gaur egun bertako euskara».

Kontu orokorretatik hasteko, egin dezagun mugapen linguistikoa: «Mendebaldeko» euskara deitzen dena (bizkaiera, herri-hizkeran) Bizkaian, Gipuzkoako Deba ibar gehienean eta Arabako Aramaion egiten da gaur egun. Horren barruan azpieuskalki bi ageri dira: sartaldekoka eta sartaldekoka, hau da, ekialdekoka eta mendebaldekoa. Sartaldekoka edo mendebaldeko azpieuskalkian beste hiru berbeta nagusi ageri dira: a) ipar-sartaldekoka (Uribe Kosta, Mungialdea eta Txorierri); b) hego-sartaldekoka (Arratia eta Zeberio); c) Nerbioi ibarrekoa (Zaratamo, Etxebarri, Basauri,

Arrigorriaga eta Ugao). Hala bada, ipar-sartaldekoiari dagokion ezaugarriak batzen ditu liburuak, berenberegiz. Egileek zehaztu dutenez, «Mendebaldeko euskararen bereizgarri gehienak aurkitu ditugu alderdi honetan; euskalkiaren ertz batean egon arren, egin diren berrikuntza gehienak heldu dira bertara. Mendebaldeko euskarak iraganeko garaietan izan duen batasun sendoa erakusten du horrek». Ipar-sartaldekoka hiru berbeta-esparruen artean (Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdea), gaur egun, «euren ezaugarri bereziak dituzte, baina, aldeak alde, denen batasuna ere bada».

Euskal dialektologian adituaren arabera, «Uribe Kostak dauka nortasunik handiena». Hizkerari dagokionez, Uribe Kostaren barrukotzat hartzen dira herri hauek: Gorliz, Plentzia, Lemoiz, Urduliz, Barrika, Sopela, Berango, Getxo, Jatabe, Laukiz eta Gatika. Leioa eta Erandiori dagokienez (Loiugaz batera), «hizkeren arteko» eremuan kokatu dituzte, «Uribe Kostaren eta Txorierriren arteko lotura egiten dute». Ostera, argitu bako kontuak ere utzi dizkie azterlanak: «Mungiaren izaera bitxiari ez eze, Uribe Kostan gertatzen denari ere ez diogu aurkitzen azalpenik: hango berbetak batasun handia daukala esan dugu. Hauxe geure buruari egiten diogun galdera: zein izan ote da indar bateratzailea? Zein izan ote da eskualde horretako bilgunea eta eredia? Nabarmendu dezagun, gainera, Uribe Kostan ez dela izan merkaturik: Portugaletera ‘Portaltera’, bertakoen esanetan- edo Mungiara jo izan dute hango bizilagunek». Argi dute Uribe Kostako berbeta gordetzailea dela: «XVIII. mendetik hona Gipuzkoa izan da euskararen ardatza; handik zabaldu dira berba eta ezaugarri berriak. Uribe Kosta urrun samar egon da eta ez ditu jokabide horietako gehienak hartu. Aldiz, Uribe Kostan bertan sortu eta indartu dira zenbait jokabide; esate baterako, artikulua «jatea». Uribe Kosta ‘bakarti’ ibili dela esan daiteke eta bakardade horretatik etorri da bertako berbakera berezia». Geurea den hori betiko galdu edo desagertu ez dadin zer egin daitekeen argi dute Goitik eta Zuazok: «gure esku dago berbak berriro erabiltzea»; eta hori lortzeko zelan eragin litekeen ere badakite: «leku bakoitzean euskararekin beharrean dabilzanak bertako berbeta ezagutzea dute lehenengo zeregina. Horretan

“Gure esku dago berbak berriro erabiltzea, bertako berbeta ezagutzea, eta bertako hori euskara batuan txertatzea”

ahalegindu behar lirateke irakasle, kazetari, itzultzaile eta gainerako eragileak. Bigarren zeregina bertako hori euskara batuan txertatzea. Euskaltzaindiak argiro esan du euskarazko berba guztiak direla euskara batukoak. Horrek esan nahi du asao, paraje, alde-taio, izara, izeko... lasai erabili daitezkeela: euskara batukoak dira eta, gainera, Uribe Kostakoak».

Izan ere, geurea galduko bada, errua ez da besteena izango; geurea desagertuko bada, belu izango da arrazoi bila beste alde bati begiratzeko. Geure hori osatzen duen neu-tik bidea egiten hastea dateke garrantzitsua. Ezagutzeko eta ikasteko bideak badaude: liburuez gainera, asko ez badira ere darabiltenak oraindino badira-eta! Belarriak adi, burua argi, mina abil... euts diezaiozun Uribe Kostako berbetari! Bertokoa, lekukoa hartzeko prest? ◀



Uribe Kostako bereizgarriak

Ipar-sartaldekoka hizkuntza-eremuak adierazten ditu goiko mapak, mugapen linguistikoa. Horren mugak lausoagoak dira eskualdearen muga administratiboak baino. Kolore gorriaz dagoen eremua dagokio Uribe Kostako berbetari, tartean gorrixkaz dagoena ere bai. Mendebaldeko euskararen altzoan, ipar-sartaldekoka azpieuskalkiaren barrukoa da Uribe Kostako berbeta. Ezaugarri askok batzen dute albokoz: Txorierriko eta Mungialdekoka berbetakaz; ostera, horiekiko bereizgarriak ere badauzka:

ARTIKULUA GUZTIZ ASIMILATZEN DA

Absolutibo singularrean ere bai. Eremu barruan daude Leioa, Erandio, Loiu eta Mungiako Birle auzoa; Atxurin eta Laukariz auzoetan ere batzuetan gertatzen da.

Hau da, artikulua «jatea»: ‘andrea’ esateko *andre*; ‘herria’ esateko *herri*; ‘eskua’ *esku*; *etxe* ‘etxea’; *iturri* ‘iturria’; *goso* ‘gozoa’. *etxe* erosi (etxeA erosi); *ogi* ekarri (ogiA ekarri); *esku* emon (eskuA eman).

-OA- ◀ -O- EGITEN DA JOAN-EN ORAINALDIKO ADIZKIETAN

Leioan, Erandion eta Loiu ere gertatzen da.

no ‘noa’, *sos* ‘zoaz’; *etxera* *no* ‘etxera noa’/ *tabernara* *sos* ‘tabernara zoaz’.

-AU- ▶ -EU- EGITEA EZ DA HELDU

Bizkaiko eremu zabalean egin da -au- ▶ -eu-: *paseu* (◀ *pasau*) ‘pasatu’. Bilakaera hori ez da heldu Uribe Kostara eta Txorierriko mendebalean.

PARTIZIPIOAN -ADU ▶ -AU ▶ -A EGITEA

Egia esan, ez da bertokoa bakarrik, Bizkaiko itsasbater gehienean egiten da -a, Erandion hasi eta Ondarroa bitartean.

akaba ‘akabatu’; *kanta* ‘kantatu’; *blokea* ‘blokeatu’; *organiza* ‘organizatu’...

-TEN DA HORRELAKOEN ADITZ IZENA

Partizipioan -adu ▶ -a egin izanaren ondorioz, -ten da horrelakoen aditz izena.

gústaten ‘gustatzen’; *kantaten* ‘kantatzen’.

BERBA BEREZIAK, HAUEK:

Lexikoan, Uribe Kostakoak eta inguru honetakoak:

aldestaio ‘ganora gutxikoa’; *asao* eta *paraje* ‘urrun/hur’; *ataza* ‘zeregina’; *barekil* ‘barea’; *basi* ‘saltsa, untoa’; *justuri* ‘tximista’; *leba* ‘inportantzia’; *mamurtu* ‘mastikatu’; *troñu* ‘korapiloa’; *andana* ‘ganora’; *gárikol* *gáriteko* *gáreztikol* *gárizteko* ‘gainerako’, Mungian, Erandion eta Loiu ere bada; *opetzi* ‘eskaini’ Txorierriko mendebalean ere bada.

ALDAERAK


Aldera: oinarritzat edo erduztat hartzen denarekiko desberdintasunen bat duen beste modu bat.

Adib.: *emon* ‘eman’. Bakarra aurkitu dute: *angéru* ‘aingeru’; Txorierriko mendebalean ere bada.

ZÉLAU/ZÉLASEKO ‘ZELAKO, NOLAKO’, ÓLAU/ÓLASEKO ‘HORRELAKO’ TANKERAKO ALDAERAK

Mungian, Bakion, Meñakan eta Txorierriko mendebalean ere badira.

OHARRA: *Etzanez* daudenak ahoskatzen diren legez idatzita daude, hotsak eta azentuak kontuan izanda.



© DAVID HERRANZ

Mundukatuak

Matthew Horan davietarra

«McDonald's-ak zaldia lotzeko gunea zeukan»

Matthew Horan musikari algortarrak zazpi urte daroatza Uribe Kostan bizitzen. Dead Bronco taldearen aurpegi ezagunena olatu bila etorri zen AEBetatik. Surfaren gaineko bideo-jokoengatik ezagutu zituen hemengo hondartzak. Musika, eta azken boladan zinema ere, surfagaz bateratzen ahalegintzen da, «baina nire agenda dela-eta, ez dut lortzen baldintzarik onenetan egitea», dio Horanek. Halere, ez da damutzen hona, euskal kostaldera, etorri izanaz: «nire amets ederrenetan ere ez nuen pentsatu olaturik ez dagoen Floridako hegoaldeko mutiko batek Mundakan surf egingo zuenik». Olatuek ekarri zuten Algortara, «kostaldetik hur dagoelako eta giro handia duelako. Leku oso polita da, bizitzeko atsegina». Horanek aitortu duenez, «oso gustura nago, nire alaba hemen bizi da eta beragaz egon gura dut». Ostera, ez du

baztertzen etorkizunean bizitzak beste nonbaitera eroatea: «batek daki zer garta daitekeen... inoiz ez dakizu».

Musikariaren herria, Davie, zaldi-eta abere-hazleen eremua izan da historian, eta famatua da zaldi-lasterke-

“ Nire amets ederrenetan ere ez nuen pentsatu Mundakan surf egingo nuenik ”

tengatik eta rodeoengatik. Itxura ere horrelakoa dauka: «Bertako arkitektura westernetakoa da, ia-ia wild west [mendebalde basatia]. Nire etxe ondoko McDonald's-ak zaldia lotzeko gunea zeukan! Lagunengana zaldiz nindoan, aparta zen!». Gastronomikoki ere, ildo beretik doa herria: ohikoena barbakoa da; Horanek platerik gus-

tukoena *gator bites* da, kaiman errea. Airearen usaina ere ezberdina da, «hezetasunaren eta zingiraren lurrina» daroalako. Dena den, Horanen ustez, Daviek bere nortasuna galdu du: «aspaldiko partez egon nintzen orain dela gutxi, eta ezin izan nuen ezer ezagutu, ezta neure etxea ere. Baso batek inguratuta zegoen auzoa, baina Udalak basoa bota du. Behiek bazkatzen zuten larreak orain *mini-malls* dira, merkataritza-gune txikiak, Starbucks eta Jamba Juice dendakaz» ekarri du akordura. Horregatik dio, penaz, ez joateko Davie bisitatzerako, eta Fort Lauderdale-ra hurreratzeko: «bertara nindoan ni».

Algortan gehien harritu duena da «Santa Claus hemen Olentzero izatea, eta mendian bizitzea; baina gustukoa dut». Zirimiria ere interesgarritzat jo du. Algorta ere gogoko du, «dena paraje edo hur dagoelako, ez dut autorik erabili behar ia; eta olatuak daude!». ◀

NOR DA

Nongoa

Davie (Florida, AEB).

Adina

34 urte.

Zertan dabil

Dead Bronco musika-taldean abesten eta gitarra jotzen du. Gainera, aktore bezala hasi da aurten, *The Night Watchman* filman.

Ikasketak

Enpresa-administrazioa eta bizargintza.

Noiztik Euskal Herrian

2009an heldu zen, Mundakako eta Sopelako olatuen bila, Kelly Slater Pro Surfer bideo-jokoak erakarrita.

NONGOA DA



Lurraldea

AEBetako Florida Estatu.

Azalera

170.304 km² (Euskal Herria beste zortzi aldiz pasatxo).

Hiria

Davie.

Biztanleria

91.992, 2010eko erroldaren arabera.

Hizkuntzak

Florida Estatuako Konstituzioak bere bigarren artikuluan dio «ingelesa Floridako hizkuntz ofiziala» dela. Testua 1988an gehitu zen, English Only mugimenduak bultzatutako erreferendumaren eraginez. Halere, biztanleen %19,5ek gaztelaniaz egiten du berba, eta beste %7k beste hainbat hizkuntzatan: kreolera, frantsesa eta portugesa dira horien artean nagusiak.

Dirua

Dolar estatubatuarra.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua